

# Arrasate

P R E S S

1999ko  
Otsailak 26  
441. zenb.



## Hamar urte ezetz esaten

IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • EUREN IKUSPUNTUTIK: J. M. INSUNZA  
KANPOAN BIZI: JABIER OZAETA • KIROL GAIA: TRIALSIN TXAPELKETA

Gidari onenek

# OHOREZKO-MATRIKULA

merezi dute

Zatoz **MAPFRE** ra  
Areagotu  zure hobariak

Mapfrenen Ohorezko Matrikula Planarekin, gaur egungo polizaren antzintasuna gorde ahal izango duzu.

(95-I-I baino lehenago edozein konpainiatan kontrataturiko polizentzat)

Lor itzazu **hobaririk onenak denborarik laburrenean.**

Automobil Aseguruetan dagoen **Lehen** Erakundearen babesarekin.

**3.000.000 ibilgailu baino gehiago** aseguraturik eta **2.400 bulego, bezeroak zaintzeko.**

Asegura ezazu zeure autoa behar bezala.



**MAPFRE MUTUALIDAD**

Ondo gidatu. Seguru ibili.

Garibai Etorbidea, 16 • Tel.: 943 79 89 00

Arrasate Pasealekua, 37 • Tel.: 943 79 71 31



## SAIOA GIMNASIOA

Zuzendari Teknikoa: Iñaki Muñoz

Kirol Tekniko Gorena • C.N. 3 D.A.N Entrenatzaile Nazionala

Kontzeiño, z/g, tunela • ARRASATE • Tel: 943 79 97 31

Orain estetika  
zerbitzu berria  
izango duzu Saioan

### Aerobic programa

- . High-Low Impact
- . Funky
- . Salsa
- . Step
- . Tonifikazioa



### Aerobic-a

Goizez eta arratsaldez  
Ikasiak, hasi berriak eta haurrak

### Karate

Haurrak (5 eta 9 urte)  
Gaztetxoak (10 eta 13 urte)  
Helduak

### Gimnastika

3 adineko mantenimendua.  
Goizez eta arratsaldez

### Sauna

### Solarium

### Masajea

- Osteopatia - Kirol masajea
- Drenaje linfatikoa
- Kiromasajea - Ziatikak

### Muskulazioa

- Kulturismoa - Kirol prestakuntza
- Fitness - Gaiberritzea (errehabilitazioa)

### Squash

# Hurrengo alkateari gutuna

**A**gur t' erdi: Ez duzu oraindik izen jakinik. Hala ere, gutuna igorri nahi dizut. Agian nor izango zaren ez jakiteak libreago idazteko aukera ematen didalako.

Oraindik ez zara alkategai, eta ez bakarrik hautagaien zerrendak egin gabe daudelako. Arrasateko mapa politikoak ez du ziurtatzen zerrendaburuetan

nor izango den hurrengo alkatea. Sasoi batean, EAJren gehiengo erabatekoak ezartzen zuen alkatea —Ardanza kasu—, baina alderdi honen hausturak beste aukera batzuk zabaldu zituen.

Hamar urtez, eta besterik ezean, boto gehien jaso dituen alderdiak —HBk— izan du alkatezta, baina orainsu hiru alderdiren arteko itunak EAJri itzuli zion. Orain,

ordea, itun hori hankaz gora joan da goragoko larretan eta aukera gehiago



Mikel Irizar

**“Zure alderdiak jarriko zaitu zerrendan, baina agintea herritarrek emango dizute”**

zabaldu da berriro.

Lizarrakoen artean besterik gabeko errespetua nagusitzen bada, HBk izango luke alkatezarako aukera gehien, bere boto kopuru altuenei eusten badie. Eta badirudi horretarako Xabier Zubizarreta nahi dutela berriro zerrendaren buruan, Txironen tiradizoak alderdirik botatuena izatea

ziurtatuko lukeen ustean. Baina EAJk eta EAK zerrenda bakarria aurkezten badute —eta horretan ari dira— orduan EAJk lortuko luke alkatezta gordetzea.

Edonondik zatozela eta edonor zarela ere, zugandik zer nahi nukeen azaldu nahi dizut, errespetu osoz.

Lehenbizi, izan dezazula nortasuna.

Zure alderdiak jarriko zaitu zerrendan, baina agintea herritarrek emango dizute. Biei zor izango diezu leialtasuna, baina ezkontezinak suertatzen badira, egiozu kasu herriari.

Militante eskasagoa izango zara, baina alkate hobea.

Bigarren, har itzazu beste zinegotziak lankide gisa. Haiek ere herria ordezkatzan dute, eta udaleko lana bideratzen laguntzeko daude. Eta ez badaude, azal dezatela garbi, zeuk ez eman aitzakiarik. Ahalegin zaitetz adostasuna sortzen, aurrez inor baztertu gabe.

Hirugarren, izan zaitetz umila. Arrasatek berezkoak ditu ekimenerako indarra eta antolaketarako dohaina. Zure lana laguntzea da, bideratzea, osatzea. Herriko aurrekontu potoloa kudeatzeak ez zaitzala oilar. Dirua ez da zurea.

Eta azkenik, joka ezazu baikortasunaren alde. Euskal Herriaren hurrengo urteak politak eta gogorak izango dira. Itxaropen asko gauzatu ahal izango da, baina traba ugari gaudituz. Zure tamainan, izan zaitetz bide eta ez traba.

Eta dena eskatzea izan ez dadin, nire laguntza eskaini nahi dizut. Estilo honekin baldin bazatoz, alde eta aldemenean izango nauzu. Eta zaude

*“Iaz 40 euskaldun izan ziren nire (Eskoziako) etxean. Horietatik 22 Arrasatekoak ziren. Nire etxea beti egon da zabalik”.*

**Jabier Ozaeta**

**5**

**enpresa sortu ziren udalaren Arrisku Soldataz baliatuz**

92tik 94ra bitartean bost enpresa sortu ziren, udalaren Arrisku Soldata erabiliz: bitxitegi bat, bideo produktora bat, grabazio etxe bat, informatika denda bat eta kirol zerbitzuak eskaintzen dituen beste bat. Oraindik ere, bostak dabilta lanean.

ITURRI ONETIK

## Odol emaleak Arrasaten

Iaz aurreko urtean baino 65 odol poltsa gutxiago jaso ziren Arrasaten. Horrekin batera, 104 odol emale berri gutxiago egin ziren. Hona hemen zenbakiak:

	1997	1998
Anbulatorioa	713	658
Alecop	80	57
Euskadiko Kutxa	66	83
Fagor Garagartza	123	153
Ikerlan	83	65
Guztira	<b>1.313</b>	<b>1.248</b>



**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 23 88. Faxa: 943 71 23 95  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deograças, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Kaittin Allende, Nerea Zallo. **Arantzazu Lagunilla.** (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Administrazioa:** Argutizane Gainzarain (Tel.: 943 71 23 90). **Disainua:** Txos Azurmendi. **Astoburuetak berriemakileak:** Gontzal Landa. **Bokaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketaren ardura:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Geru Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

**ARRASATE PRESS** paper birziklatuan egiten da.

**Azala:** Txos Azurmendi.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

## GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 26**  
• Gaeuz eta egunez: Morales, San Andres
- Larunbata, 27**  
• Gaeuz eta egunez: Azkoaga, Ferrerías
- Igandea, 28**  
• Gaeuz eta egunez: Español, Iturriotz
- Astelehena, 1**  
• Gaeuz eta egunez: Korkuera, Musakola
- Asteartea, 2**  
• Gaeuz eta egunez: Irizar, Erguin
- Asteazkena, 3**  
• Gaeuz eta egunez: Amezua, Santa Marina
- Osteguna, 4**  
• Gaeuz eta egunez: Zabala, Zarugalde

## BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**  
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
Igualarioria ..... 943 79 05 00  
Santa Agedako Ospitalea  
(gizonak) ..... 943 79 39 00  
(emakumeak) ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**  
Bergara ..... 943 76 55 76
- DYA**  
Antzuola ..... 943 78 71 57
- Anbulatorioak**  
Arrasate (Larrialdiak) ... 943 03 53 00  
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 03 53 50  
• Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
• ikuskatzailea ..... 943 03 53 52  
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11  
• Fax zenbakia: 943 03 05 14  
Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
Aramaiio ..... (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**  
Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**  
Oñati ..... 943 78 04 11  
Bergara ..... 943 77 91 06  
Arrasate ..... 943 79 14 39  
Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
Eskoriatza ..... 088
- Ertzaintza**  
Arrasate ..... 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**  
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
..... 943 79 78 44  
..... 943 79 76 78
- Garraioak**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Monterron liburutegia**  
Monterron ..... 943 77 01 05
- Irratia**  
Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## JABILOREN FAMILIAK, ESKER ONEZ

Gutun hau Jabier erabat osatuta dagoela hasiateko gustatuko zitzaizuke-en.

Bizi kalitatea eta giza berotasuna ez zaizkio falta izan eta erabat bere oneratik bitartean beharko duen denboran ere ez zaizkio faltako, gure eskuetan dagoen neurrian, behintzat.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu inoren sufrimenduaren aurrean halako eskuzabaltasunez erantzun duzen guztioi.

Erakutsi diguzuen giza aberastasuna, bultzada, hurbiltuna eta laguntza ekonomikoarekin indarra eta itxaropena eman diguzue. Horrelako ezbeharrak gertatu behar ote dira kontura gaitezen pertsonak hornitzen gaituen sentiberatasunaz?

Jabiloren lagunei, hamar milioi esker. Luxuzko gazteak zarete, sufritzen duenaren saminaren aurrean zuen denbora, laguntza eta maitasuna oparo ematen duzenak. Ohorea da guretzat zuek adiskide izatea.

Jabi aurrera ateratzeko gai izango ahal gara! Orduan merezi izan duela esan ahal izango dugu.

Beste behin ere, mila esker guztioi. Adeitasunez,  
*M<sup>a</sup> Luisa Domingo*

## Gutunen araudia

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sor ez dadin, araudi berria ezarri dugu, gutunetako sailean.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu, nahitanahiez:

- Egilearen izenez argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde izena onartuko da.
- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hortik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.
- Anonimo, gaitzenez edo inizialez datozenak ez dira argitaratuko.
- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordeen kaleratuko dira gutun guztiak.
- Gutun iraingarrik ez da argitaratuko.
- Egilea bera dela egiaztatzeko, gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du. Telefono zenbakia nahikoa da horretarako.

## Telefono berriak

Arrasate Komunikabideak elkarteak telefono berriak ditu joan den asteleheneetik hasita. Hauek dituzue zenbaki berriak:

- Arrasate Press ..... 943 71 25 11
- ATB ..... 943 71 23 93
- Administrazioa ..... 943 71 23 90
- Publizitatea ..... 943 71 23 91

*Sipi Sipi*

**%50eko  
beherapenak**

Obrak direla eta, Ferrerías kaleko 28.ean gaude

**UGARAN  
jatetxea**  
Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M**  
**MEMESA**  
Industria hornidurak  
Tel. 943 71 24 25


# Intsumisioa kausa galdutzat jotzen duzu?

*Laster Espainiako Armada profesionalizatu egingo da.*



**Xabier Elgezabal**  
(23 urte)  
Ikaslea

Ni intsumisioaren alde nago erabat, eta armada profesionalizatzean ere segituko duela uste dut.



**Julian Conde**  
(58 urte)  
Langilea

Nik uste dut desagertu egingo dela. Soldadutzara joatea beharrezkoa ez bada, ez da intsumisorik egingo.



**Miren Bragado**  
(14 urte)  
Ikaslea

Desagertu egingo da, soldadutzara derrigor joatearen aurkako mugimendutzat ikusten baitut.



**Maria Eugenia Iturbe**  
(24 urte)  
Langilea

Intsumisioak aurrera segituko du, armadaren kontrako mugimendua baita osotasunean.



**Milagros Beitia**  
(52 urte)  
Langilea

Armada profesionalizatzean, intsumisioa desagertu egingo dela uste dut.



**Jose Maria Mendizabal**  
(69 urte)  
Jubilatua

Desagertu egingo da, armadaren kontrako mugimendutzat baino soldadutzaaren kontratatzat ulertzen baitut.



**Danel Rementeria**  
(24 urte)  
Ikaslea

Soldadutzaren izaera aldatzen bada, intsumisioa ere egoera berrira egokituko da.



**Amaia Barandiaran**  
(30 urte)  
Langilea

Nire ustez, intsumisioak ez du zentzu handirik izango armada profesionalizatutakoan.

**Garajea salgai**  
**Laukalean**  
(Roneon)

**Tel: 943 79 01 71**  
**Arratsaldeko 19:00etatik**  
**22:00etara**



**KONTRATAK**  
**IRYROK S.L.**  
**ERAIKUNTZAK**

San Lorenzo, 39 etxabea  
Tel.: 943 78 21 82  
OÑATI

Meatzerreka, 5 bis  
Tel.: 943 77 09 92  
Faxa: 943 - 79 78 14  
ARRASATE

*Ippek*  
*Denda*

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

## Arrasate

### LANAK

#### SANTA TERESAN

Santa Teresako 18, 20 eta 22 zenbakietan eta Doneztebe Portuko kalean saneamendu lanak egiten ari dira.

#### OTALORAN


Pilotalekua egiteko lanak.

#### KONTZEZIÑON

Etxeak egiteko lanak.


#### FERRERIASEN

24 eta 26 zenbakietan etxeak konpontzeko lanak segitzen dute.



**Biztanleak: 24.257**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**

## Eguraldiaren aurreikuspena



**OSTIRALA 26**

Aspaldiko partez, eguzkiak lainoak eta euria ordezkatu ditu. Haizeak ahul joko du ekialdetik ipar-mendebalderantz joz.



**LARUNBATA 27**


Antizikloiaren eraginez, oskarbi agertuko da zerua. Tenperatura ere epeldu egingo da egunez.



**IGANDEA 28**

Haizeak aldatzen ez badu, laino gutxi izango ditugu zeruan. Hala ere, aldaketa espero da iganderako.

## Ilargia



**Ilbetea**

Ilargi betearekin hasiko dugu martxoa. Martitzenean, hilaren bian, ilargi betea izango du.

## Mezak

#### Parrokia

##### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

##### Igandean:

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (elebiduna)

#### San Frantzisko

##### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

##### Igandean:

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

19:00 (elebiduna)

#### Uribarri

##### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

##### Igandean:

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

#### San Andres

##### Ostiralean

18:30 (Otoitz ordua)

##### Larunbatean

18:30 (Bezpera abestiak)

19:00 (elebiduna)

##### Igandean

10:00 (erdaraz)

11:00 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

#### Santa Teresa

##### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

##### Igandean


10:30 (erdaraz)

11:30 eta San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

## Urkuluko uraren maila


**%99,9**



## Urteurrena

Orain dela urtebete *Arrasate Pressen*:

- Pedro Guridi presoa Martutenera ekartzeko eskaera egin zuen Arrasateko Udalak.
- Lan orduen murrizketaren aldeko mobilizazioak egin ziren, sindikatuek deituta.
- Meatzerrekako pilotalekua inauguratu zen.



# KIROL BAKOITZARI ERANTZUN BAT

Kontzezino kalea 8 Tel. 043 70 46 12 • ARRASATE

  
**ARRASATE**  
**KIROLAK**

# 26 ostirala

■ ZINEA

*Dos vidas en un instante*, Alai zineman, 19:00etan eta 22:00etan.

■ LIBURU AURKEZPENA

“Euskal gazteen irakurzaletasuna” liburuaren aurkezpena Bergarako udal-etxean, 19:00etan.

# 27 larunbata

■ ZINEA

*Entre las piernas*, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ MASAJE IKASTAROA

Jose Luis Armendiak masaje ikastaroa antolatu du Dharma yoga zentroan. 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango da. Igandean, segituko du 10:00etatik 14:00etara.

■ KALE AGERRALDIA

Pedro Mertxanen kalera-tzea salatzeke agerraldia egingo dute ESK, LAB, CCOO, LANKIDEAK eta EILAS sindikatuek, arratsaldeko 19:00etan, Sebero Altuben.

■ KONTZERTUA  
GATETXEAN

Bilboko *Spiders* punk-rock taldea, *Haggish* punk-hardcorea eta Asturiaseko *Ass-Druggers* punk-rock taldea arituko dira Gaztetxean, gaueko 22:00etatik aurrera.

■ KONTZERTUA JAM  
ARETOAN

*Reincidentes* eta *Biotech* taldeak arituko dira gaueko 22:00etatik aurrera. Sarrera, 1.500 pta. kostako da.

# 28 igandea

■ ZINEA

*Entre las piernas*, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ MENDI IRTEERA

Besaidek irteera egingo du Artatza-Krezmendi-Irantzu mendietara. Irteera Goazen Mendiriz Mendi ekitaldiaren barruan egingo da, Euskal Mendizale Federazioaren 75. urte ospatzeko. Krezmendi mendian Tutera-ko Ketzal mendizale taldearekin elkartu eta Besaidekoek makila bat jasoko dute hurrengo asteburuan Baigura mendian Barañaineko Lagunak mendi taldekioei pasatuko dietena. Maiatzaren 5ean, Elgetara iritsiko da makila.

■ KULTUR ERROTA

AEDk eraturik, Kultur Errotaren saio berri bat egingo da Amaia antzokian, 19:00etan. Iñaki Labaka eta Mikel Urdangarin musikagileak arituko dira kontzertuan.

# 1 astelehena

■ ZINEA

*Entre las piernas*, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

# 2 asteartea

■ ZINEA

*Entre las piernas*, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

■ JANARIAK MINTZAGAI

Eusko Jaurlaritzako Kontsumo arduradunak “Janariak eta elikapenak” izenburuko hitzaldia eskaniko du Erguineko Herri Eskolan, gurasoei zuzendua, arratsaldeko 17:30etan.

■ EMAKUMEAK  
MINTZAGAI

Egizan taldeak antolatuta, “Lizarra-Garazi eta Emakumeen eskubideak” izango ditu mintzagai Rakel Peñak, Monterronen, 19:30etan.

## Andaluzia eguna

Asteburu honetan ospatuko dute Al Andalus kultura elkartek IX Andaluziaren eguna. Larunbatean 19:00etan, Garcia Lorca Sainete antzerki taldeak emango dio hasiera jaialdiari. 19:30etan, Juancojones txirigotarekin. 21:30etan, afaria adiskideentzat. 00:30etan, Trio Trebol taldearen dantzaldia izango da. Gauari txokolate eta txurroekin emango zaio amaiera. Igandean, 11:30etatik gaztelu puzgarriak eta haurrentzako trena. 13:00etan, Al Andaluseko lehendakariaren agurra, ohorezko ardoa eta abesbatz errozieroak Andaluziako ereserkia abestuko du. 13:30etan, mus txapelketako finala jokatu da. 14:30etan herri bazkaria. 16:00etan haurrentzako jolasak. 16:30etan gaztelu puzgarriak eta haurrentzako trena. 18:15etan, Alegria de la Sierra talde erroziera. 18:40etan, Al Andalus abesbatz erroziera. 19:00etan, Aitor Escobar gitarrajolea. 19:25etan, Sueños de Andalucía dantza taldearen saioa.





# 3

## asteazkena

### ■ EMAKUMEEN EGUNA DELA ETA

Martxoaren 8aren inguruan antolatu diren ekitaldien barruan, ipuin kontalaria ari-tuko da Ekin emakume taldearen egoitzan, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

# 4

## osteguna

### ■ LANAREN KULTURA

Unai Martinezek "Lanaren kultura aldaketa: bere eragina lan merkatuan" hitzaldia emango du Almeneko ikastolan, 18:00etan.

### ■ BATZAR OROKORRA

Umezaintzak batzar orokorra egingo du Monterronen, 18:15etan. Besteak beste, Hezibideren proiektu berria bozkatuko dute.

### ■ EMAKUMEEN EGUNA

Martxoaren 8aren inguruan antolatu diren ekitaldien barruan, ipuin kontalaria ari-tuko da, 17:00etatik aurrera Gizarte eta Familia Heziketarako zentruan.

### ■ ZINE EMANALDIA

Martxoaren 8ko ekitaldien barruan *A los que aman* filmaren emanaldia Amaia antzokian, gaueko 21:30etatik aurrera.

### ■ EMAKUMENAREN EGUNA

Martxoaren 8aren inguruan antolatutako ekintzen barruan, martxoaren 5ean, ostirala, kale animazioa egongo da goizeko 10:00etatik 12:00etara San Andres azokan.

### ■ HEZIBIDEREN INFORMAZIO BULEGOA

Haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako ikasleentzako matrikulazio epea amaiturik, aurrerantzean Arrasateko informazio bulegoan Hezibideko partaide diren Almen, San Viator, ETEO eta Mondragon Eskola Politeknikoak dituzten batxilergo eta heziketa zikloen eskaintza zabalari buruzko informazioa emango da. Gogoratu Arrasaten Biteri etorbideko 15. zenbakian, (Zaldibarko pilotalekuaren ondoan) edo 943 79 88 75 zenbakian, asteleheneetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

### ■ 51KO SOLDADUGAIK

Martxoaren 6an ospatuko dute kinto eguna 51ko soldadugaiak. 12:30etan meza izango dute San Joan parrokan. Ondoren txikiteoa egingo dute eta Hostalen bazkaria, 14:30etan. Izen emateko Juan Jose Uribarreni deitu 943 79 80 08an.

### ■ 60KO SOLDADUGAIK

Martxoaren 13an egingo dute kinto eguna 60koek. 12:30etan meza izango dute San Frantzizko elizan eta bazkaria, berriz, San Andres auzoko Irantsube elkartearen egingo dute. Izen emateko, Carmelo Amozarrain (943 79 59 29), Adolfo Gomez (943 79 19 73), German Moreno (943 79 61 64) edo Santos Hernandezi (943 79 31 83) deitu.

### ■ EMAKUMEEN ETA GIZONEN DESIOAK

Agurtzane Ormaza eta Garbiñe Merino izango dira "Emakumeak eta gizonak, nolako desioak nolako kontraesanak" izenarekin Emakume Sailak antolatu duen sexualitate jardunaldietako hizlariak. Hitzaldiak apirilaren 20-27 bitartean eta maiatzaren 4-11 bitartean izango dira. Izen ematea Gazte Bulegoan eta Emakume Sailean, martxoaren 31 baino lehen. Martxoaren 5ean, hitzaldiak eskainiko dituzte gai hauen inguruan.

### ■ ESKI IRTEERA

Besaidek eski irteera antolatu du Palentziako Alto Carrionera martxoaren 19tik 21era bitartean. Izen ematea martxoaren 9, 10 eta 11n, egin daiteke, Besaideren egoitzan, arratsaldeko 19:30etatik 20:30ak arte.

### ■ MENDI IRTEERA

Goazen Mendiriz Mendi ekimenaren barruan, Besaidek irteera antolatu du Lapurdira. Izen ematea, martxoaren 2, 3 eta 4an, 19:30etatik 20:30etara, Besaideren egoitzan.



USTEAK USTE

Enpresak sortu

Hiru urtean zehar, 1992tik 1994ra bitartean, Arrasateko Udalak Arrisku Soldata izeneko egitasmoa sortu zuen, enpresa proiektu berriak bultzatzeko.

Tarte horretan hamar proiektu landu ziren, baina azkenean bost eratu ziren enpresa moduan: bitxitegi bat, bideo produktora bat, grabazio etxe bat, informatika enpresa bat eta elbarrientzako-eta kirol zerbitzuak eskaintzen dituen beste bat.

Bi xehetasunek ematen dute atentzia. Alde batetik, enpresa guztiak zerbitzuekin lotuta egotea. Industria nagusi izan den herri honetan, bada zerbaite. Bestetik, iraunkortasuna: bospasei urte geroago, bostak dabilta lanean. Horrek esan nahi du proiektu horiek bultzatzeko erabili zen diru publikoa zerbaiteko balio izan duela.

Enplegua Sustatzeko Programak aldatu egin ziren eta, ondorioz, Arrisku Soldata bezalako programarik ez dago gaur egun. Diru laguntzak beste modu batean bideratzen dira. Kontua, hala ere, enpresa iraunkorrak sortzea da.

Joxe Aranzabal

JMAko esperientzia aberasgarria

\* Jesus Maria Insunza

Arrasateko JMA enpresa 1942. urtean sortu zen, era guztietako giltzak egiteko. Lan horretarako baliabide materialak alde batera, 120 langile inguruko lantaldia du antolatua.

Enpresan urtebete pasatxo daramagu euskararen aldeko lanean. Duela zortzi bat urte langileek horrela eskatuta, lehenengo Euskara batzordea sortu zen, lantegian euskara indartzeko helburuarekin. Sortu eta berehala proposatu zituzten hainbat ekintza: errotulazioa euskaraz, sentsibilizazio kanpaina, euskalduntze talde bat, etab.

Enpresako Euskara batzordeko kide bat AEDko Euskalan taldean parte hartzen hasi zen. Handik ekarri zuen duela hiru bat urte enpresetan euskararen erabilera areagotzeko plangintzen berri. Eusko Jaurlaritzara jo eta 1998ko apirilaren 20an Euskararen erabilera areagotzeko hiru mikroplangintza abian jartzea lortu

genuen, Elhuyarren koordinaziopean. Hori guztia langileen eta zuzendaritzaren oniritziarekin. Bi helbururekin:

- Barne harremanak euskalduntzea: enpresaren barne harremanetan, idatzizkoetan zein ahozkoetan, euskara erabiltzea. Euskara lan hizkuntza bihurtzea.

- Kanpo harremanak euskalduntzea: euskararen erabilera sistematikoki lantzea egiten diren harremanetan.

Aipatutako helburu horiek gauzatzeko euskal hiztunetz osatutako bost talde antolatu dira. Antzeko zereginetan diharduten langile talde hauek, *hobetalde* izenez ezagutzen ditugunak, beren zereginetan euskara erabil-


tzeko dituzten aukerak identifikatu, aztertu eta hori gauzatzeko bideak proposatzen dituzte.

Zuzendaritzak proposamen horiek aztertu eta bidegarriak direla ikusiz gero, abian jartzen ditu enpresan. Hobetaldeak dira mikroplangintzaren tresnarik funtsezkoena, parte hartzea, motibazioa eta trebakuntzaren bidez benetako aldaketak eragiten dituztelako. Euskaraz ez dakitenez eskolen bidea erabiltzen ari gara. Horretarako enpresan bertan diharduen lehenengo urratseko talde bat sortu da eta beste bat maila desberdineko langilez osatutakoa, zenbait euskaltegian integratuta.

Lehen urte honetan talde eragileak abian jarri eta egonkortzea genuen helburu eta esan daiteke hori lortu dugula; eta euskalduntze programari dagokionez ere bai. Gainera, ikusten ari gara idatzizko eta ahozko barne harremanak —era guztietakoa— euskalduntzen hasi direla. Orokorrean langileen planarekiko jarrera oso ona izaten ari da.

Beraz, esan genezake diseinatutako plangintzak bide onetik egin dituela bere lehen urratsak. Oinarria jarri dugu, baita lehen urratsak egin ere, eta gure eguneroko lanean euskararen erabilera guztiz arrunta gerta dadin, hasitako bidetik egingo dugu aurrera.

\* JMAko kudeatzailea.



**beatriz**  
oinetakoak eta poltsak  
Erdiko kale, 11  
Tel.: 943 79 14 33  
ARRASATE

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUMA  
Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 943 77 13 78

**S. CARRASCAL S.L.**  
Guk egindakoak:  
• Sukalde altzariak  
• Armairu enpotratuak  
• Trastelekurako armairuak  
**Fabrikari erakusketak**  
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel./Faxa: 943 79 01 82

**OÑATI**

**1** Zuhaitz Eguna

Igandean “Zuhaitz Eguna” ospatuko da herrian. Hiru urte-tik hona egin den bezala, egun honekin lotutako hainbat ekitaldi egin dira astean zehar, hala nola, ikasleei zuzendutako hitzaldiak, filmak eta, noski, gaurko mahai ingurua.

Aurtengoan ere Oñatiko Natur Eskola izan da ekitaldi hauek antolatu dituen.

Honetaz gain, Natur Eskolan bertan, ingurugiroaren defentsa bultzatzeko erakus-keta bat zabalik izango da igandea arte. Hantxe, Euskadin dauden 55 zuhaitz motaren erakusgarriak ikusi ahal izango dira. Berez, Jesus Lopez naturalistaren bilduma da.


Honetaz gain, igandean bertan Natur Eskolak, Eki talde ekologistak eta Aloña Mendi Taldeak mendirako irteera antolatu dute. Duru aldera joko dute, ibilaldian zehar hemengo zuhaitzak landatuz.

**ARETXABAETA**

**2** Xakea gora

Herriko Arlutz Xake Taldeak aurtengo liga txapelketako irabazle nagusia da. Honela, mailarik gorenera igotzea lortu du taldeak, Ohorezko Euskal Ligara hain zuzen ere.

Bestalde, xakearekin segituz, herriko taldeko jokalaria den Fran Miguel Quintero, Euskal Herriko Unibertsitateko txapelduna da.



**ESKORIATZA**

**3** Kirol zerbitzu berriak

Kiroldegiak zerbitzu berriak jarri ditu abian. Hemendik aurrera, 18 urtetik beherako haurrentzat aerobic eta masaje orokorra ere jarriko dira aukeran. Herrian dauden beharrei hobeto erantzuteko asmoz ipini dituzte ekimen berri hauek.

Honetaz gain, iaz egin zen moduan, aurrean ere urpean ibiltzeko ikastaroak izango dira.

Bestalde, igeriketa ikastaroak, karatea, hirurgarren adi-

nekoentzako gimnasia berezia, pertsona ezinduentzako eta giharrak sendotzeko gimnasia ere eskaintzen ditu herriko kiroldegiak.

Berri gehiago behar duenak, deitu 943-715328 telefonora.

Gaur bukatu da “Dharma” izeneko yoga elkarteak Arrasateko Yoga Elkartearekin batera, masaje teknikei buruz antolatutako ikastaroa. Jose Luis Armendia izan da ikastaroetako irakaslea. Batez ere lasaitzeko masajea landu du atzo eta gaur izan diren ikastaroetan.

**ANTZUOLA**

**4** Gipuzkoako txapeldun

Antzuola Kirol Elkarteko Egoitz Jauregi kirolaria Gipuzkoako luzera jausiko txapelduna da. Pasa den igandean Anoetako belodromoan egin zen Gipuzkoa eta Euskadiko pista estaliko txapelketan irabazi zuen. Honetaz gain, froga hau Euskadiko txapelketarako baliogarria ere bazenez, Egoitz Jauregi hirugarren gelditu da. 5,63 metroko jauziarekin.

**BERGARA**

**5** Justo Garate Arriola beka

1995. urteko Justo Garate Arriola bekaren emaitza aurkeztu du gaur Mari Jose Olaziregi Alustizak. “Euskal Gazteen Irakurzaletasuna. Azterketa Soziologikoa” izenburupeko lana egin du azken urteotan eta gaur aurkeztu du jendaurrean udaletxean iluntzeko 19:00etan.

Mari Jose Olaziregik, 1990. urtetik 1996a bitartean 2.700 gazteri eginiko galdeketa emaitzen azterketarekin egin du liburua. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle den honek, gazteen zaletasunak eta jarra etikoak hartu ditu kontuan, besteak beste.

Beka honen helburua iker-tzaile gazteen artean Euskal Herriko Soziologia, Historia eta Euskal Filologiaren ikerketa bultzatzea da. 1992. urtean sortu zen beka.

**Zuri Garbiketak**  
Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 943 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

**Cristina Garcandia Mugika**  
Dermatologoa

Kontsulta Centro Medico Udalaiz-etik Olarte kaleko 43ra aldatu du.

Olarte 43, Tel.: 943 79 81 11 / 943 79 81 00

## Etxenikeren proposamenak

Guillermo Etxenike, Gipuzkoako Foru Aldundiko Industria diputatua Arrasaten izan zen astelehenean. Deba Bailarako proposatzen duen egitasmoa aurkeztu zuen prentsaurrean. Etxeniketik Deba Bailara hiri bateratu bilakatu nahi du. Horixe izango da aldundirako datozen barne hauteskundeetan aurkeztuko duen egitasmoa.

## San Viator

Astearteko batzarrean ikastolako bazkideek onartu egin zuten Hezibideren egitasmoa. 114 pertsona zeuden deituta, 86 agertu ziren eta 81ek bozkatu zuten. Horietatik 73k baietz bozkatu zuten, 6k ezetz eta 2k zuriz.

## Kanpaldia

ESK, LAB, CCOO, Lankideak eta EILAS sindikatuek Pedro Mertxanek kaleratzea salatzeko kale agerraldia deitu dute larunbaterako, 19:00etan, Seberon.

Pedro Mertxanek, berriz, mugarik gabeko kanpaldia egingo du Garaibairen monumentuaren ondoan, agerraldiaren ostean hasita.



Aste honetako osoko bilkuran zinegotzi guztiak egon ziren.

# Eguneko zerbitzua Cerrajeran ezarriko da

Astelehenean otsailari dagoen osoko bilkura egin zen udaletxean. Hamalau puntuko gai zerrenda izan zen eta guztiak onartu ziren. Hori bai, gai batzuk zalaparta nahikotxo eragin zuten zinegotzien artean.

Puntu bat egon zen bereziki eztabaidatua. Udalak 500 metro koadroko toki bat utziko dio Aita Menniri Cerrajeran, arazo psikikoak eta fisikoak dituzten adinekoei eguneko zerbitzua emateko. 35 plaza egongo dira guztira, bailarako jendez beteko direnean.

Xabier Zubizarretaren iritziz, hamar urteko epea luze-egia dela pentsatzeaz gain, ez da oso egokia ibaiaren gainean dagoen eraikinean ipintzea. Deba Bailara osoan ez omen dago horrelako besterik. Joseba Ugalde, Ezker Batuko zinegotziaren ustez ere, gaia sakonago aztertu beharra dago. Kontuak kontu, azkenean, onartu egin zen HBren eta EBren kontrako botoekin.

### UDAL SOZIJETATE PUBLIKOKA

Hauxe dugu eztabaida piztu

zuen beste puntuetariko bat. Izan ere, udal gobernuak Udala Sozietate Publikoa egitea proposatu du. Arrasateko lurzorua errezago kudeatzea izango litzateke asmoa.

HBren ustez, lan hori udalak ongi betetzen du eta ez dago honelako elkarte baten beharrik. Ondorioz, ezetz bozkatu zuen. Ezker Batuak hainbat hutsune somatu ditu egitasmo honetan, baina baiezko botoa eman zuen. Azkenean, hau ere onartu egin zen. Egitasmo honen memoria jendaurrean ipiniko da.

## EUDIMA: "Intsumisioa bizkortu, inhabilitazioa gainditu"

EUDIMA, Euskal Udalerri Intsumituen Mankomunitateak Batzar Orokorra egin zuen pasa den larunbatean Arrasaten. 1998. urtearen balorazio positiboa egin eta 1999. urterako prestatutako helburuen berri eman zuten. Gobernu Espainiarrak indarrean jarritako inhabilitazio legea ezabatze ahaleginak egingo dituzte aurtun. Enpre-

sario, sindikatu eta alderdi politikoekin "Intsumisioa bizkortu, inhabilitazioa gainditu" izeneko herri akordioa sinatuko dute. Gazteren bati lanpostu bat ezeztatzen badiote inhabilitatuta dagoelako, Eudimak auzian parte hartuko du.

Datorren astetik aurrera telefono bat jarriko da lanean.

Kanpaina hau, asteartean Oiarzunen egindako bileran aurkeztu zen. Logotipo berria, txostena eta sei minutuko bideoa ere erakutsi ziren. Kanpaina amaitzeko, apirilaren 17an kale agerraldia egingo da Iruñean.

### ARRASATETIK INOR EZ

Asteleheneko Osoko Bilkuran eztabaida piztu zuen gai

honek. Izan ere, Arrasateko Udala Eudimako partaide da, baina inor ez zen joan zapatuko Batzar Orokorra. Bestetik, HBk eta EBk gogor kritikatu zuten udalak Espainiako Armadari gazteen izenak bidali izana eta urteroko 300.000 pta. ko kuota ordaindu ez izana. Jakinarazi zenez, udalak ez omen zuen onartu kuota ordaintzea.



**ESKAINITZA  
BEREZIAK**

**Sofa  
leku**

**HIRU JOKO  
LARRUA  
OIHALA  
3+2**

**GRUPO**



**Amuebladora  
Mondragonesa**



## Jaiotzak

- Mikel Santiago Azurmendi. Urtarrilaren 28an.
- Naiara Canelo Muguruza. Urtarrilaren 29an.
- Janire Garcia Fuentes. Otsailaren 10ean.
- Amaiur Mendizabal Bengoa. Otsailaren 10ean.
- Alazne Zuazubiskar Iñarra. Otsailaren 14an.
- Danel Argoitia Lezeta. Otsailaren 16an.
- Patxi Davila Davila. Otsailaren 16an.
- Jokin Kortaberria Uribarren. Otsailaren 22an.

## Ezkontzak

- Jesus Maria Terrazas Iñurrieta eta Ana Maria Curto Davila. Elizaz. Otsailaren 13an.

## Heriotzak

- Francisco Zabala Madina. Otsailaren 16an.
- Catalina Martinez Vaquero. Otsailaren 19an.


## Bake epaile berria bidean

Arrasateko Udalak osoko bilkuran aho batez, Oskar Arana Ibabe arrasatearra proposatu du datozen lau urteetan herriko Bake epaile izateko.

Ordezkoa, berriz, Karmen Iriondo Urrutia oñatiarra izango litzateke. Gauzak horrela, Euskal Herriko Epaitegi Gorenak proposamen hauek aztertu eta onetsiz gero, izendapenak egitea besterik ez da falta izango.

Sei pertsonak eman zuten izena bake epaile izateko, baina azkenean, bi besterik ez ziren aurkeztu.

Joseba Arregi "Kataide" eta Julio Gorroño goitia izan ziren azken bake epaileak.



Jose Luis Lizarbe, Fagor Industrialeko kudeatzailea.

# Fagor Industrialek 25 urte

Fagor Industrialek zilarrezko ezteiak betetzen ditu aurten. Izan ere, 1972an Fagor Domestico utzi eta bere kasa hasi zen lanean, Zubillaga auzoan, Oñatin.

Dena den, Fagor Industrien jatorria Ulgorren bilatu behar da. 1960an Ulgorreko departamendu txiki batean sukalde industrialak egiten hasi ziren. Ondorengo bost urteetan frijigailuak eta marmitak egiten hasi ziren.

Kontua da Fagor Domestico sail bezala eratu zela eta gero eta jende eta baliabide gehiago behar zituenez, bere kasa hasia erabaki zutela. Orain 25 urte.

Ostalaritzarako, Baxera eta Arropa Garbiketarako katalogo zabalak eskaintzen ditu gaur egun. 1997an beste lantegi bat ireki zuten Cordoban, hotz industrial lan-tzen duena. Urtebeteren buruan izugarri hazi da Lore-

nako fabrika, halakoxea baita izan duen eskaria.

Fagor Industrialek 290 langile ditu. Datorren ekainean zabaldu egingo dute Zubillagako fabrika, 5.000 metro koadro gehiagorekin. Dagoeneko lur sailak erosiak ditu.

Lider da Espainiako estatuko merkatuan eta bost kontinenteetan saltzen ditu bere produktuak. Ez da, ez, lorpen makala.

## Euskara 31 urtez eskoletan

Orain 31 urte euskara herri eskoletan irakastea baimendu zuen legeak. Arrasaten ere, gauzak izugarri aldatu dira euskararen irakaskuntzan eta dagoeneko bailara osoan ez dago A eredurik eta hezkuntza ia guztia euskara hutsean egiten da.

Euskara eskoletan sartu zenean, hasieran hiru ordu baino ez zuten ematen.

Ez zegoen euskarazko materialerik eta irakasleen esku gelditu zen materiala

sortzea. Horretarako, Arrasateko irakasleak Agurtzane Jaiorekin elkartu ziren, materiala prestatzeko.

### MURGILTZE EREDUA

1982-83. ikasturtean matrikulatutako haurren ia %64k A ereduan ikasi zuten. Hau da, euskara ikasgai bat baino ez zen eurentzat. B ereduan, euskaraz eta gaztelaniaz, haurren %34 matrikulatu zen. Orduan, ez zen D eredurik herri eskoketan.

Baina, B ereduan aldaketa sakonak etorriko ziren. Eskoriatzako Irakasle Eskolarekin batera, metodologia bat garatu zen 1989. urtean. Honi esker, urte horretan, herri eskoletako haurren %13 A ereduan zebilen eta %84, berriz, B ereduan.

Hainbeste urteren ostean, hezkuntzak erakutsi du euskaraz bizitzeko behar-beharrezkoa dela euskara. Herri ikastetxeek ere horixe ulertu zuten bere garaian.

astea bi hitzetan

■ **Sua Aretxabaletan**

Ostiralean Aretxabaletako Legaia enpresako galdara batek sua hartu zuen. Berogailua piztu nahi izan zutenean galdara bat lehertu zen eta sua piztu zen inguruan. Zubillagako suhiltzaileak joan behar izan ziren sua emendatzera. Badaezpada hustu egin zuten lantegia, baina azkenean inolako ezbeharririk izan barik lortu zuten sua itzaltzea.

■ **Harresiaren aztarnak**

Olarke kalean egiten ari diren etxearen aldamenean, Arrasateko antzinako harresiaren aztarnak aurkitu zituzten pasa den ostiralean. 2cm.ko geruza txiki bat besterik ez zen izan, baina hori nahikoa da harresi zaharra Olarte kaletik zehar zihoala ziur-

tatzeko, betidanik uste izan den moduan. Kale horretan, harresiak 2 m.ko zabalera eta 6 m.ko garaiera omen zeukan.


Arkelan Donostiako enpresa ibili da arrastoak aztertzen. Mertxe Urteagaren ustez, oso zaila izango da beste zerbait aurkitzea. Izan ere, Olarte kalean egindako etxeek harresiaren aztarnak desegin dituzte.

■ **Harrobiak aztergai**

Auzitegi Probintzialeko fiskaltzak Arrasateko harrobiei buruzko eginbideak zabaldu ditu. Herrian zabalik dauden hiru harrobiek legedia betetzen duten edo ez jakin nahi da. Izan ere, herritar batek harrobi hauen aurkako salaketa egin zuen hainbat arau betetzen ez

dituztelakoan. Besteak beste, udalarekin hitzartutako berreskuratze planak ez betetzea, ingurugiroari eginko kaltea zehazteko azterketarik ez egitea eta izandako ekimen industrialaren ondorioz, aztarnategiei eta babestutako landareei kalte egitea.

Salaketak Donostiako Auzitegi Probintzialeko fiskalari bidali zitzaizkion. Ondorioz, honek salaketak aztertzeke eginbideak zabaldu ditu. Era berean, orain itxita dauden Altzaurti eta Santutxoko harrobiei buruzko informazioa ere eskatu du Juan Kalparsoro Donostiako fiskalak. Bi harrobi hauen egoera eta berreskurapenaz galdetu du. Izan ere, harrobien jabeak berreskurapen lanetan dabilta dagoeneko.



**JARRAI ADECCOREN AURKA**

Pasa den ostegun arratsaldean kale agerraldia izan zen Sebero Altuben. Jarrai gazte taldeak deituta, "Dagokiguna geurea egin, Adecco esplotatzailea" leloa zuen pankarta batekin, aipatutako enpresaren egoitzaren aurrean ipini ziren.

Aldi baterako lan enpresen aurkako ekimena izan zen. Izan ere, Jarrai taldearen ustez, mota honetako enpresek kalte ugari egiten diote oraingo gazteriarri "zabor kontratuekin", lanpostu eskasekin eta antzekoekin.



Orain kontua omen da non ezarriko den Euskal Herriko kutxen egoitza bateratua. Josu Bergara Bizkaiko alduen nagusiak dagoeneko esan du Bilbon ezarri beharko litzatekeela. Guillermo Etxenikek, berriz, EAeko hiru hiriburuetatik distantzia berdinsura egongo den toki batean ezarri beharko litzatekeela aurreratu du, Arrasaten edo Eibarren. Arrasaten ezartzen bada, Wall Street emango du hark. Pentsa, orain MCC eta Euskadiko Kutxa eta gero beste hau..."

**MARIANO FERRER**

Gipuzkoako Herri Irratia  
1999.2.24

**BASABE JATETXEA**

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak  
Tel.: 943 79 91 84

ARETXABALETA

*Sagardotegia*

**ITURBIETA**

**Txotx egin!**


Astelehenetik  
asteazkenera  
enkarguz  
Ostegunetik  
igandera zabalik

Arraga auzoa  
Tel.: 945 44 53 85  
ARAMAIO

**Txitxinpe**

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Otarateko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



## BITXIA ETA POLITA

Animalia bitxiak gustuko dituenak ez du zertan zoologiko batera joan horiek ikustera. Begira, adibidez, Uribarri auzoko Santana baserrian zein pauma ederra daukaten!

## ARTEA GAINBEHERAN

Ez da, ez, arte berria, ezta hor nonbait pilatutako harri multzoa ere. Asteartean lurrean etzanda agertu zen Angel Caminoren eskultura. Kontua da inork ez dakiela zer gertatu den, baina argi dago ez duela haizeak bota.



Udalpe gastronomia elkartean ondo prestatzen dituzte bilerak. Izan ere,

begira zer nolako merienda jan zuten batzar orokorraren aurretik. Lana

egiteko indartuta joatea komeni da eta...



**EHENENGO JAN, ETA GERO LAN**







## URREZKO EZTEIAK, URREZKO URTEAK

Dionisio Arrizabalaga eta Luxia Elorza orain 50 urte, otsailaren 26an ezkondu ziren. Zazpi seme-alaba izan zituzten. Guztiek inguratuta —seme-alabak eta bilobak— bazkari berezia egingo dute otsailaren 27an Mondragon Hotelean. Ondo ibili eta zorionak!



## URIBARRIKO TXAPELDUNAK

Hauetxek dira Uribarriko Gizarte Etxeko karta jokoan nagusi: ezkerretik hasita, Andres Bengoa eta Andres Gabilondo daude, mus txapeldunak. Ondoren, Elena Lopez eta Lucia Zabala, briska txapeldunak eta hirugarren bikotea, Marino Hidalgo eta Agapito Moreno dira, tute txapeldunak.



# Arrasateren ekarpena intsumisioari



Intsumisioak hamar urte bete zituen pasa den otsailaren 20an. Urte hartan aurkeztu ziren lehenengo intsumisioak. Arrasatek tradizio handia izan du gai honetan eta hori jaso nahi izan dugu orrialde hauptan. Honetarako Juan Luis Esperesate eta Ander Santiago intsumisio arrasatearrekin izan gara.

Juan Luis Esperesate 1991. urtean egin zen intsumisio. Hiru urte itxaroten egon ostean, 1994an epaitu zuten. Bi urte, lau hilabete eta egun bateko espetxe zigorra edo epe berdineko inhabilitazioa ezarri zioten. Beste askok eta askok bezala, ez du zigorra bete, "bila etorri ez zaizkidalako".

Ander Santiago, berriz, intsumisioa sortu aurretik eta Kontzientzia Eragozpenaren Legea eratu aurretik egin zen eragozle eta ondoren intsumisio. Baina hori baino lehen, antimilitarismoaren aurkako jende multzo batekin batera ibili zen. Gerora, Ander Santiago Ordezko Zerbitzu Sozialekiko (OZS) intsumisio egin zen. Zigorrak gogorragoak ziren.



Bitarteko guztiak aprobetxatu dituzte intsumituek.

**1** 987. urtean sortu zen Arrasateko Antimilitaristak taldea, CCOOen egoitzan. Hala ere, 1988tik 89ra bitartean hartu zuen indarra. Orduan Gaztetxera pasatu zen eta gero, Gazte Bulegora. Betidanik koordinatu da Kakitzat taldearekin.

Mondragoeko taldearekin batera, Errenterian, Bergaran eta Azkoitian ere sortu ziren taldeak.

Garai hartan jende gehienaren pentsaera bestelakoa zen. Soldaduskara joatea onartuta zegoen eta ez zegoen ia eragozlerik. "Kontzientzia eragozpena Jeovharen Lekukoekin lotzen zen batez ere; beraiek izan ziren lehenengo eragozleak". LKiko eta EMKko jendea, anarkistak, independenteak eta horrelakoak ibiltzen ziren militarismoaren kontrako inguruetan.

Hilabete batzuk geroago, Gobernuak Kontzientzia Eragozpenaren Legea behin betiko onartu zuenean, intsumisioa indarra hartzen joan zen.

Golkoko guduak ere izan zuten eraginik: jendea beldur-

tu egin zen eta intsumiso kopurua izugarri hazi zen. "Arrasaten ikaragarri igarri genuen hori".

Arrasateko intsumituen bulegoak berebiziko garrantzia izan du. Kalera begira, asko lagundu zuen intsumisioaren zabalkundean. "Jendeari erraza egiten zitzaion etortzea. Ama eta amama asko etortzen ziren informazio eske. Deba Bailarako bulego bakarra zen eta kanpoko jende asko etortzen zen". Arrasaten bada aipatu beharreko bestelakorik:

### AIPAGARRIAK

Arrasateko mugimendu antimilitaristak kolore guztiak batu ditu bere baitan. Honen adierazgarri dira mugimendu honen inguruan ibili diren pertsonak eta erakundeak, bi lagun hauen arabera:

• **Iñigo Irasuegi:** Intsumiso izatearren epaitu eta kar-

tzeleratu zuten lehenengo intsumiso arrasatearra. Hiru hilabete inguru egin zituen Alcalako espetxe militarrean. Kontzientzia eragozpenak indarra hartu zuen.

• **Jon Anzin:** fraide viatorista. Hasieratik ibili zen mugimendu antimilitaristan. Libre utzi zuten, baina taldean segitu zuen.

• **Jose Manuel Izquierdo "Mamel":** ikusmen arazoak medio, libratu egin zen soldadutzatik. Hala ere, intsumiso egin zen.

• **Mikel Beitia:** hirugarren graduari uko egin zion lehenengo intsumiso arrasatearra.

• **"Bodegas" Ekaitzeko zerbitzaria:** Mikel Beitia eginiko gauza bera egin zuen.

• **ATB:** Andoni Urzelai kameralaria intsumisoa zen. Iñigo atxilotu zutenean, Madrilera joan ziren. ATBko langile gehienak ziren intsumiso.

• **Eskolak:** Institutuan eta Eskola Politeknikoan asko landu zen Intsumisioa. Almenen eta San Viatorren, aldiz, beti izan dituzte arazoak.

• **Udala:** oso ondo konpondu dira intsumituak HBrekin eta EArekin. Xabier Zubizarretaren agintealdian ez zuten inolako arazorik izan. Loitirekin, ostera, ez daude hain pozik.

### ORAIN, ZER?

"Guk bagenekien armada profesionala iritsiko zela. Prozesua bizkortu baino ez dugu egin. Argi dago armadaren profesionalizatzeko mugimendu antimilitarista asko baretuko duela. Arrasateko taldea adibidez, orain bi urte desagertu zen. Hala ere, armada profesionalak teknologia berriak behar ditu, oso garestiak. Horrek izugarri haziko du gastu militarra".

"Orain zer galdetzen dida-

zu? Bada, hasieran gertatu zen bezalaxe, pentsamolde antimilitarista dutenek borrokan segituko dute armadaren desagertzea lortu arte.

Orain soldadutza egin nahi duten asko izango dira, baina behin armadan egonda, askok eta askok ez dute bizi-modu hori jasateko kemenik eta handik irten gura dute. Nik uste dut orain horixe dela erronka nagusia".

EUDIMAK ere, Euskal Udal Intsumituen Mankomunitateak alegia, lanean segitzen du, orain batez ere inhabilitazioaren aurka. Asteartean bilera egin berri dute Oiartzunen eta hantxe, abian jarri duten "Intsumisioa bizkortu, inhabilitazioa gainditu" leloa duen kanpaina aurkeztu zuten. Arrasateko Udala elkarte honen partaide ere bada. ■

Ubane Madera

## Intsumisioaren historia


- **1986ko martxoa:** NATOr buruzko erreferenduma. Kakitzat koordinadora sortu zen.
- **1987ko urria:** Kontzientzia Eragozpenari buruzko Legea.
- **1987ko azaroa:** zozketen aurkako ekintzak.
- **1988ko urtarrila:** Ordezko Zerbitzu Sozialaren legea.
- **1988ko abuztua:** intsumisioaren inguruko batzorde teknikoak eratu ziren Orion.
- **1989ko otsaila:** 54 eragozlek intsumiso zirela aldarrikatu zuten gobernu militarretan.
- **1990eko otsaila:** herri akusatzaileak udalak salatzen hasi ziren.
- **1990eko martxoa:** Jarraik "eragozpen politikoa" aldarrikatu zuen.
- **1990eko ekaina:** 60 udalek uko egin zioten Defentsa Ministerioarekin lan egiteari.
- **1991ko urtarrila:** Golkoko guda hasi zen.
- **1991ko ekaina:** Zerbitzu Militarraren Lege berria (ZML) onartu zen. Soldadutza 12 hilabetetik 9 hilabetera jaitsi zen. Intsumisioen aurkako epaiketak epaitegi militarretatik epaitegi zibiletara pasatu ziren.
- **1992ko maiatza:** Ordezko Zerbitzu Soziala 18 hilabete izatetik 13 hilabete izatera pasatu zen. Alkate intsumisioen aurkako epaiketak hasi ziren. 53 intsumiso epaitu.
- **1993ko maiatza:** Eusko Jaurilaritzak intsumisioa ez zigortzea eskatu zuen ez legezko proposamen baten bitartez. Madrilgo gobernuak 3. gradua eman zien intsumituei. 45 intsumisio ezetz esan zioten. 2.373 intsumiso zeuden "errolatuta".
- **1994ko iraila:** intsumisioak sakabanatzen hasi ziren.
- **1994ko urria:** Lehenengo Intsumisio Eguna egin zen Oiartzunen: 25.000 pertsona.
- **1995a:** Intsumisioa inhabilitazioarekin zigortzen hasi ziren.
- **1995eko urria:** Intsumisio Eguna Bermeon.
- **1995eko abendua:** Antzuolako alkatearen aurkako epaiketa. Sei urteko inhabilitazio zigorra.
- **1996ko apirila:** PPK eta CIUK derrigorrezko soldadutza kentzea erabaki zuten.
- **1996ko maiatza:** Malatxa eta EUDIMA taldeen sorrera. "Manta greba" egin zen espetxeetan. Intsumisio Eguna Berriozarren.
- **1997ko urtarrila:** kuarteletako intsumisioa hasi zen. Intsumisio Eguna Agurainen.
- **1998ko urtarrila:** intsumiso-desertoreen aurkako gerra auzitegiak.
- **1999ko otsaila:** Intsumisioaren 10. urteurrena ospatzeko kale agerraldia.

# Sortu Informatika: ordenadoreak, programak eta sareak

Sortu Informatika 1994an sortu zen, Arrasateko Udalaren Arrisku Soldata proiektua aprobetxatuz. Sei hilabeteko diru laguntza erabiliz, Fede Aranbarri Sortu Informatika izango zenaren proiektua prestatu zuen.

Lau lagunek sortu zuten enpresa: informatikari bat, bi ingeniari eta enpresa ikasketetan lizentziadun bat. Denak ere nahiko erreta zeuden behin behineko lanak eginez eta horregatik egin zuten beren enpresa sortzeko apostua. Loramendi kaleko 7an hartu zuten 50 m<sup>2</sup>ko toki bat, Mondragon Unibertsitatearen ondo-ondoan "hortxe baikeen merkatu handi bat, hango ikasleek asko erabiltzen dutelako ordenagailua", esan digu Fede Aranbarri.

Gauregun bi lagun ari dira Sortu lanean: Fede Aranbarri ingeniari teknikoa, zerbitzu teknikoaz eta salmentaz arduratzen dena, eta Mariane Milan programatzailea. Bi zerbitzu mota eskaintzen dute: neurrira egindako programak, enpresei bereziki prestatuak eta zerbitzu teknikoa, programak eta tresnak konpontzeko edo osatzeko. "Enpresek batik bat datu baseak eskatzen dizkigute: Acces, Oracle eta horrelakoak erabiliz".



Fede Aranbarri Sortu Informatikako zerbitzu teknikoaz arduratzen da.

## BEZEROAK

Loramendiko denda goizez eta arratsaldean dago zabalik (10:00-13:00 eta 17:00-20:00), baina eurek ordutegi zabalagoa dute, enpresen premiei erantzun ahal izateko. Fagor eta Alecop bezalako enpresak dituzte bezeroen artean. Baita lantegi txikitxoak eta zenbait dendari ere. Lan gehien Arrasaten eta Leintz Bailaran egiten dute. Baita Bergaran eta Oñatin ere. Gerora begira, Deba Garaiko merkatuan finkatu nahiko lukete.

Urtean 80 bat ordenadore saltzen dituzte. Inoiz ez dute

**S**ORTU  
INFORMATIKA S.L.

lortu irabaztea MUn erosten diren ordenadoreen enkante modukoa. "Birritan irabazteko zorian izan ginen, baina guk ez dugu Monttek eta, duten finantziarioa. Zaila dugu hori irabaztea", dio Fedek.

Euroak izan du eraginik euren lanean. Poliki-poliki, moldatzen ari dira programak, eurotan ere lan egin dezaten.

Saltzen dituzten ordenadoreak prestatuta bide daude 2000. urteko efekturako.

Windows sistema eragilean dabilzan PC ordenadoreekin egiten dute lan. "Windows 95 da guk gehien ikusten duguna. Ondoren Windows 3.1. Windows 98 apenas ikusten da enpresetan. Eta Windows NT ere, oraindik gutxi ikusten da".

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

ARETXABAETA

Industrialdea 1-0-4  
Telefonoa: 791844  
Faxa: 792941

**BENGOA**  
Lurrindegia • Bitxitegia • Opariak

**Saldu edo eskuz aldatzeko**

Zerkaosteta, 5 • Tel.: 943 79 28 85

# Jabier Ozaeta / Mundua eta ingelesa ezagutzen Eskozian

**Bost urte t'erdiz AEDko idazkari orokorra izan ostean, Jabier Ozaetak bi urte t'erdiz darama Eskozian. Orain, UDVko logistika eta hornidura sailean egiten du lan "whiskya, ginebra eta Baileys munduratzan".**

**— Zergatik joan zinen atzerrira?**

— Bi arrazoi nagusirengatik: beste leku batzuen berri jakiteko eta ingelesa behin betikoz gonoraz ikasteko.

**— Eta zergatik Eskoziara?**

— Aurrez Edinburgon egona nintzen oporretan abuztu batez eta hiri horren edertasunak eta bizitasunak hain-

beste liluratu nindutenez, bada, egunen batean sasoiaditxo baterako etorriko nintzela agindu nion neure buruari.

**— Ez duzu Arrasatera itzultzeko asmorik?**

— Bai, badut, nahiz eta noiz jakin ez.

**— Arrasatetik gehien faltan sentitzen duzuna?**

— Senitarte eta lagunartekoak.

**— Eskozian izan duzun zailtasunik handiena?**

— Hizkuntzaren mugak.

**— Izan duzu harremanik Eskozian ibili den edo dabilen euskaldunen batekin?**

— Bai eta asko. Nire etxea beti egon da etorritakoendako zabalik. Horrela, iazkoan, nire etxean 40 euskaldun egon ziren, horretatik 22 arrasatearrak ziren. Pozgarria da jendea jasotzea, beti ekartzen dizute horko berri eta txorizoren bat edo ardo botilaren bat.

Ikaratu egin nau euskaldunon insistentziak "I'm From the Basque Country" adierazterakoan. Horrela, gero nongoa zaren galdetzen dizutenean "From the Basque Country" erantzutean, beste batzuen berri ematen dizute eta baita harremanetan jarri ere.

**— Euskal Herria eta Eskoziaren artean igartzen duzun alderik nabarmenena**

— Eskoziarren eta ingelesaren artekoak badu nolabaiteko antzekotasunik euskaldun eta espainolekin pasatzen denarekin. Hala ere, Euskal Herriko autogobernua asegarritzat jo barik, esango nuke guk baditugula gure erakundeak eta eskuduntzak. Eskoziarrek ez dute horrelakorik, Londresera begira bizi dira, baina maila sinbolikoan. Futbol, errugbi eta

bestelako selekzioak dituzte. Horrek guztiak beraien nazionalitatearen identitatea landu du eta horregatik beharbada, ingelesengandik hain aparte direla jakinik, baretu egin zaie instituzioak lortzeko grina.

**— Nola ikusten gaituzte eskoziarrek?**

— Aparteko sinpatia digute euskaldunoi.

**— Zure iritzia Euskal Herrian izan diren azken aldaketei buruz**

— Izan nuen e-mailik pozgarrietako bat izan zen hura. Xabier Letonak idatzi zidan su etena jakinarazi zen egun berean. Une berezia izan zen. Harrezkero, askok eta askok idazten dute horri buruz hitz egiteko.

Hasi berri dugun bide honi esker, euskaldunok euskaldun izan gura dugula adieraz dezakegu modu bake-tsuan eta horrek min handiagoa ematen die gure asmoen aurka izan daitezkenei. Euskalduna naiz, eta nire herrialdea gura dugula orain esaten dugun moduan esateak, asko eta asko aho bete haginez lagatzen ditu.

*"Ikaratu egin nau euskaldunon insistentziak 'I'm From the Basque Country' adierazterakoan"*



# IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11  
ARRASATE

**PAVIMENTOS AGR**  
ARROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar  
MATERIALEN SALMENTA

**Erakusketa eta biltegia:**  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20



## A ze orduak!

**B**erandu etortzea hobe, behin ere ez baino. Eta horixe pentsatu omen zuen joan den igandean antolaketakoko batek. 10:00etan barik 13:00etan agertu zen eta orduan hasi ziren atean sarea jartzen. Hala dio eserak: Berandu etortzea hobe, behin ere ez etortzea baino.

## Laburrak

### ■ ANTOLAKUNTZAREN ERRUA

Joan den igandean Zaldibarren jokatu behar ziren lau partidetatik, bat baino ez zen jokatu. 13:00etako, hain zuzen ere. Justu beranduen zena. Badi-rudi gure antolakuntzako arduradunak ez zuela iratzargailuarekin asmatu eta lo hartu zuen. Gauzak horrela, beste hiru partida atzeratu dira: Pepelus-Orlando Piratas, EPEH-

Jotakabau eta Fraguél Gol-Eusko Label.

### ■ ATZERATUTAKO PARTIDAK?

Guztira sei partida atzeratu behar izan ditu antolakuntzak. Horietako hiru aste honetan jokatu dira. Beraz, sei taldek bina norgehiagoka izango dituzte 16. jardunaldian. Fraguél Gol, Eusko Label, Pepelus, Orlnado Piratas eta

Potrosorri taldeak izango dira bina jokatu dutenak. EPEH-Jotakabu, Potrosorri-AT Celaya eta Rex 23-AC Surkos partidak datorren astean.

### ■ TXARTELA LORTU DUTENAK

Lehen aldia amaitzeko bi jardunaldi falta direnean, hamasei taldek lortu dute bigarren aldirako txartela. Gelditzen diren norgehiagokak galduta

ere, honako talde hauek izango dira aurrez aurre, beste batzuen artean, bigarren aldian. A taldean honako hauek sailkatu dira: Orlando Piratas, Lontxo Taberna, Xhasss Ugarte, AC Surkos, Aldibi, Insert Coin eta Pepelus. B taldetik, berriz, Txantxiku Kirolak, Irati STS, KKJauri, Naranja Mecanica eta Garaje Oscar. D taldean, You Know, Potroak, Dribling eta Jotakabau.



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
ORLANDO PIRAT.	14	14	0	0	84	29	<b>28</b>
LONTXO TAB.	15	11	2	2	78	36	<b>24</b>
XHASSS UGARTE	15	11	2	2	91	50	<b>24</b>
AC SURKOS	14	10	3	1	92	49	<b>23</b>
ALDIBI	15	10	1	4	92	45	<b>21</b>
INSERT COIN	15	10	1	4	54	51	<b>21</b>
PEPELUS	14	8	4	2	50	38	<b>20</b>
LEYA	15	7	2	6	49	45	<b>16</b>
KE OXTIAS!!!	15	6	2	7	47	43	<b>14</b>
SAUKELU SCRE.	15	6	2	7	37	38	<b>14</b>
KOM. ALPARGAT	15	6	1	8	80	52	<b>13</b>
SERENGETI HC	15	4	2	9	43	62	<b>10</b>
BUKANAK	15	4	1	10	55	83	<b>9</b>
ALAI GOZOKIAK	15	4	1	10	40	84	<b>9</b>
MAKAI	15	3	0	12	38	81	<b>6</b>
BALON ROJO	15	2	2	11	25	64	<b>6</b>
REX 23	14	2	0	12	34	83	<b>4</b>
ROTOR BOLBO.	15	1	2	12	25	81	<b>4</b>

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
TXANTXIKU KIR.	15	14	0	1	18	32	<b>28</b>
IRATI STS	15	11	2	2	72	33	<b>24</b>
KKJAURI	15	11	2	2	78	46	<b>24</b>
NARANJA MEC.	15	10	3	2	97	52	<b>23</b>
GARAJE OSCAR	15	9	2	4	60	37	<b>20</b>
AURRERA BOLIE	15	9	0	6	58	44	<b>18</b>
LOS HEREDIA	15	8	1	6	33	47	<b>17</b>
KOKA JUNIORS	15	7	3	5	46	45	<b>17</b>
DIEGO ANTONIO	15	6	4	5	47	60	<b>16</b>
ZOTZ	15	6	2	7	55	57	<b>14</b>
DKB	14	6	2	6	49	59	<b>14</b>
AT CELAYA	14	6	2	6	48	54	<b>14</b>
POTROSORRI	13	5	1	7	39	83	<b>11</b>
LAUTERBRUNNEN	15	1	4	10	22	44	<b>5</b>
BORROCK&ROLL	15	2	2	11	20	31	<b>5</b>
ATERPE KAFETE.	15	1	1	12	20	55	<b>3</b>
ETXE MOBEL	15	1	1	13	30	87	<b>3</b>
PUB ARROGOI	15	1	0	14	7	33	<b>2</b>

## Emaitzak

### A taldea

Bukanak 4 - AC Surkos 7  
Alai gozokiak 2 - Serengeti HC 1  
Pepelus - Orlando Piratas  
Rotor Bolbo. 0 - Saukelu Scre. 1  
Ke Oxtias !!! 2 - Aldibi 5  
Lontxo Taberna 3 - Leya 1  
Insert Coin 1 - Balon Rojo 0  
Rex 23 - Makai 5  
Xhasss 9 - Kom. Alpargat 5

### B taldea

Borrock & Roll 0 - Koka Juniors 1  
Txantxiku Kirolak 8 - Zotz 2  
Irati STS 3 - Garaje Oscar 2  
KKJauri 7 - Aurrera Bolie 6  
Naranja Mec.7 - AT Celaya 7  
DKB - Potrosorri  
Los Heredia - Aterpe Kafetegia  
Etxe Mobil 1 - Pub arrogioi 0  
Lauterbrunnen 0 - Diego Ant.1

### D TALDEA

Cons. Luso 2 - You Know 8  
Branka Taberna 5 - Bar Nuevo 1  
Aita Menni 2010 3 - Sokoakoak 7  
Kamasutra 4 - Decadencia 2  
EPEH - Jotakabau  
Potroak 1 - Jako Al Rey 0  
EPEH 5 - Betrayal 5  
Dribling 6 - Betrayal 4  
Fraguel Gol - Eusko Label

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
YOU KNOW	14	13	1	0	74	29	<b>27</b>
POTROAK	14	10	2	2	68	40	<b>22</b>
DRIBLING	14	9	3	2	70	46	<b>21</b>
JOTAKABAU	13	9	1	3	36	29	<b>19</b>
BRANKA TABERNA	14	6	5	3	67	46	<b>17</b>
AITA MENNI 2010	14	8	1	5	55	48	<b>17</b>
EPEH	13	6	4	3	49	53	<b>16</b>
TOTEM	14	7	1	6	53	39	<b>15</b>
SOKOAKOAK	14	7	1	6	48	53	<b>15</b>
KAMASUTRA	14	6	2	6	58	40	<b>14</b>
FRAGUEL GOL	13	5	3	5	48	42	<b>13</b>
BETRAYER	14	5	2	7	53	55	<b>12</b>
BAR NUEVO	14	5	2	7	47	54	<b>12</b>
DECADENCIA	14	2	3	9	26	37	<b>7</b>
JAKO AL REY	15	2	3	10	38	50	<b>7</b>
CONS. LUSO	15	1	0	14	25	86	<b>2</b>
EUSKO LABEL	13	0	0	13	26	94	<b>0</b>

**ARRASATE**  **KIROLAK**  
Kontzeino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON



## Hurrengo partidak

### Otsailak 27, larunbata

**Zaldibar**  
09:50 Branka Tab. - Jotakabau  
11:00 Fraguel Gol - Eusko Label  
12:00 Leya - Kom. Alpargat  
13:00 Txantxiku Kir. - Celaya  
14:00 Ke oxtias!!! - Makai  
15:00 Alai Gozokiak - Aldibi  
16:00 KKJauri - Koka Juniors  
17 :00 Potroak - Sokoakoak  
18:00 Lontxo Tab. - Orlando Pir.  
19 :00 Kamasutra - You Know

### Iturripe A

13:00 Pepelus - Orlando Pir.  
14:00 Decadencia - Betrayal  
15:00 DKB - Garaje Oscar  
16:00 Dribling - Fraguel Gol

### Iturripe B

13:00 Bukanak - Serengeti HC  
14:00 Cons. Luso - Bar Nuevo  
15:00 Potrosorri - Diego Ant.  
16:00 EPEH - Eusko Label

### Otsailak 28, igandea

**Zaldibar**  
09:50 Insert Coin - Rex 23  
11:00 DKB - Potrosorri  
12:00 Xhasss - Pepelus  
13:00 Totem - Aita Menni 2010

### Atsedena:

**A taldea:** Saukelu Scream, AC Surkos

**B taldea:** Zotz, Etxe Mobil, Aurrera Bolie, Naranja Mecanica, Irati STS

**TXOKO**  
**TABERNA**  
Eure berezitasunak  
pintxo eta  
mekau gozoak

 **PEUGEOT**  
Salmenta eta  
zerbitzua

**IBABE**  
**GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Erdiko kale. 79 19 37

**I**  
**L**  
**E**  
**A**

Ferrieras. 943 79 87 62

Mondra taldeko atezain berria

## BORJA TXASKO

*“Oraindik entrenatzen nabil. Ez naiz berehala jokatzeko etorri”*

— **Noiz etorri zinen Arrasatera?**

— Joan den asteko asteartean egin zidaten fitxa, baina astebete lehenago hasi nintzen entrenatzen.

— **Zer moduz hartu zaituzte taldean?**

— Ondo, esango nuke. Hasieran bertakoek kanpoei buruz duten iritzia ezagutu behar duzu, baina ondo nago. Talde jatorra aurkitu dut eta gustura nabil, pozik.

— **Non aritu zara orain arte?**

— Arabako preferente mailan dagoen Zaldiarain taldean jokatu dut. Aurretik Alaves taldean aritu nintzen.

— **Alde handia dago Arabako eta Gipuzkoako preferente mailen artean?**

— Arabakoa lagun artekoa da, eskola artekoa ia-ia. Oso maila xumea dago. Askotan jokatzeko aritzen gara. Hemen, ordea, herri asko ari direla badakit eta giroa ere polita dela jakin dut. Dena den, oraindik ez dut askorik ezagutzen.

— **Mondraren egungo egoeraz zer diozu?**


— Ez dago oso egoera onean, baina aterako gara uste dut. Horretarako badugu taldea eta ziur naiz azken tokietatik aterako gara.

— **Noiz uste duzu jokatu duzula?**

— Oraindik entrenatzen ari naiz. Ez naiz berehala jokatzeko etorri. Gainera, hori entrenatzaileak esan beharko du.

— **Noiz hasi zinen Alavesen?**

— Futbolean 12 edo 13 urterekin hasi nintzen eta Alavesen, infantil, haur eta gazte mailak jokatu ditut.



## ESKUBALOIA Ezin leike

Esakerak dioenez “ezin leike ezaik esan, ezin neike baño”. Agian hori da Arrasate Eskubaloia talde nagusiari gertatzen zaiona, zeren jadanik hogeita bat dira galdu dituen norgehiagokak. Denboraldiko partida guztiak, hain zuzen ere. Larunbatean Musakolan jokatu zuen Balerdiren taldeak eta Gasteizko Arabacan Gure taldeak gol zaparrada ederra sartu zion. 11 eta 30 amaitu zen norgehiagoka. Defentsan ez zuten asmatu mondragoetarrek eta gainera ez zuten aurkariaren atean zirrikiturik aurkitu.

Aste honetan Donostiako Egia taldearen aurka jokatuko dute larunbatean, arratsaldeko 18:30etan. Egiatarrek galdu egin zuten joan den astean. Ia bada, esaera ez den errealitate bihurtzen eta ezina gaitzitzeko gai diren gureak.

## FUTBOLA Oraingoan bai!

Gaitz guztiak dute euren bederatziurrena, baita Atxabalpekoak ere. Izan ere, igandean denboraldiko bigarren garaipena eskuratu zuten Jabier Letonaren mutilek Atxabalpen. Aurrekoa 15. jardunaldian izan zen, Rotetaren aurka. Igandean Real Union taldeari 6 eta 0 irabazi zieten. Saillapenean 18. segitzen dute, baina dagoeneko azken tokietan dauden bi taldeetatik piska bat urruntzea lortu dute preferente mailakoek.

Aste honetan derbia izango da Aretxabaletan. Atxabaldarrak seigarrenak dira saillapenean, 41 punturekin, Letonarenak baino 13 gehiagorekin.

## ERRUGBIA Hurrengo hobeto



Senior mailako Arrasate Errugbi Taldeak 29 eta 8 galdu zuen igandean Bera-Beraren aurka.

Aste honetan etxean arituko dira Bilboren aurka, larunbatean, 16:00etan. Betaranoek ere jokatu zuten larunbatean. Ordiziaren aurka 25 eta 0 galdu zuten. Gazte mailakoek, amaitu dute lehen aldia, 0 eta 85 galduz Bera-Beraren aurka.

## SASKIBALOIA Garaipen ederra



Arrasate Saskibaloia taldeak Bergarako Bolsos Bergara hartu zuen mendean larunbatean

Musakolan. Bi taldeak puntuak berdinduta zeudela eta, leihakortasun handiko partida izan zen. Partida hasieran ez zen joko handirik ikusi. Baina bi taldeak piztu zirenean, mondragoetarrek aurrea hartu zuten. Tardeka markagailua estua izan zen, baina azkenean, 86 eta 78 amaitu zen partida. Aste honetan Rioja David Morenoren aurka arituko dira, Santo Domingo de la Calzadan.

## ATLETISMOA Zorionak Oskar!

Euskal Herriko eta Gipuzkoako pista estaliko txapelketan izan zen Oscar Gaviñan Arrasate Kirolak Atletiko taldekoa asteburuan. Jaurtiketa proban urrezko domina eskuratu zuen Gipuzkoako txapelketan. Euskal Herriko txapelketan, zilarrezko dominarekin gelditu zen. Zorionak, bada, Oskarri!



## Gipuzkoako trialsin txapelketa Arrasaten

Igandean Gipuzkoako trialsin txapelketarako baliagarria den proba jokatu da Udalan. Infantil, alebin, junior eta neskak arituko dira Gipuzkoako txapelketako laugarren proba izango den honetan. Hasi berriak txapelketatik kanpo arituko dira.

Guztira 40 bat trialsin zale arituko dira Motorzale Elkartek seigarren urtez antolatzen duen txapelketa honetan.

### HERRIKO TRIAL ZALEAK

Arrasateetik Xabi Abasolo eta Xabi Kortabarria, infantiletan, eta Nestor Kortabarria, juniorretan, arituko dira. Iaz

Nestor bigarren izan zen, gazte mailan. Aretxabaletako Jokin Egurbide ere junior mailan leihatuko da eta Eskoriatzatik, berriz, Urrezola anai-arrebak arituko dira lehian: Arkaitz infatiletan, Oihana nesketan eta Beñat hasi berrietan.

Aurreko urteetan, Arrasatekoa txapelketako azken proba izanik, txapela ia erabakita egoten zen. Aurten, ordea, txapelketako laugarrena jokatu da igandean; beraz, oraindik gauza asko gerta daiteke.

Txapelketa goizeko 10:30etan hasiko da Udalan eta eguraldiak laguntzen badu ikuskizun ederra izango da, ziur asko.



Arrasateko hiru lagun arituko dira leihan.

## Ulma-Cegasa, afizionatuetako txirrindulari talde berria

Joan den larunbatean aurkeztu zen Oñatiko Unibertsitatean afizionatuetako txirrindulari talde berria: Ulma-Cegasa. Jose Luis Fernandezek 14 txirrindulari zuzenduko ditu: Txema Ruiz, nafarra, Migel Vicente, irundarra, Imanol Urbieto, asteasuarra, Iñaki Goiburu, legazpiarra, IbanTheys, añorgarra, Julen

Saldias, zarauztarra, Jon Altube eta Markel Irizar, oñatiarrak, Jon Bikendi, azpeitiarra, Jon Oregi, plaentxiarra eta Jon Perez, gasteiztarrak osatzen dute taldea, Asier Atxa eta Ivan Velascorekin batera.

Besalde Aloña Mendi kirol elkarteak, 23 txirrindulari arituko dira gazte, haur, alebin eta infantil mailetan.



**Ivan Velasco**  
Arrasatearra

19 urte. Iaz Fagor taldean aritu zen eta Errioxan 3. eta Juango Zabala lasterketan 5. izan zen gazte mailan.



**Asier Atxa**  
Aretxabaletarra

19 urte. Iaz Fagor taldean aritu zen. Azpeitiko lasterketan 1. eta Seguran eta Errioxan 2. izan zen, gazte mailan.

## Euskal Herriko senior mailako karate txapelketa Arrasaten

Senior mailako Euskal Herriko karate txapelketa jokatu zen joan den larunbatean Iturripen. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 104 karateka aritu ziren lehian, karateka batzuk ez ziren agertu eta. Tartean Erik Martin, Saioa Karate eskolako eta Isidor Ugarte, Gasteizko taldekoa.

### ERIK MARTIN

XVIII Euskal Herriko txapelketa zen larunbatekoa eta Saioa karate eskolak antolatzen zuen laugarrena. Aurtengoa, ordea, erronka handia zen. Izan ere, senior mailan antolatzen zuten lehenengo zen eta, gainera, ordezkari bakarra izan behar zuten. Erik Martin, Espainiako junior mailan hirugarren tokian gelditu zen mondragoetarra.

Larunbatekoa senior mailako

txapelketa batean parte hartzen zuen lehen aldian berarentzat. Dena den, ez zen asko igarri hori. Izan ere, Erik hirugarren gelditu zen Gasteizko Jorge Bizueteren aurka jausi ondoren. Dena den, bere ustez gehiago merezi izan zuen, izan ere "gasteiztarrari emandako kolpea ez zen horrenbesterako izan".

Gauzak horrela, txapela Jorge Bizuete gasteiztarrentzat izan zen.

### BIGARRENA ETXEOKA

Bigarren tokian, beste mondragoetar bat gelditu zen. Isidor Ugarte, Gasteizko talde batekin aritu zena leihan. Urteak dira Isidor ikasketak zirela eta Gasteizera joan zela eta, harrezkero hango talde batekin ari da karatean. Larunbatean Euskal Herriko bigarrena onena izan zen.

## BENITO LERTXUNDI (MUSIKARIA)

# “Inoiz ez dut sentitu kan

Zaila da Benito Lertxundi ezagutzen ez duenik aurkitzea. 1967an atera zituen bere lehen singleak, eta orduanik kantagintzan segitu du. Orkestra sinfonikoarekin batera grabatu zuena izan da “benitozaleei” eskaini dien azken diskoa. Oriotar kantaria Arrasaten izan genuen joan den larunbatean, beste bederatzia musikari lagun zituela. Ikusleek biziki gozatu zuten bere abesti tradizional eta berriagoekin.

— “Ez Dok Amairu” taldeak zein leku betetzen du gaur egun zure kantagintzan?

— Denok dugu nolabait esateko gure jatorria, eta horrek bideratu egiten zaitu. Hasiera guk eman

genion kantagintzari, geure bidea egiten ikasi behar izan dugu. Gure burua geuk egin dugu, eta hori izugarritzko kultura jorraketa izaten da. Hori guztia “Ez Dok Amairu”koa izatearen ondorio da. 33 urteren ondoren, dudarik gabe, “Ez Dok Amairu”ren eragina antzematen da.

— Zer aldatu da euskal musikagintzan?

— Denbora pasatu ahala, ikasi egiten dugu ibiltzen eta bakoitzak askotan ispilu izan behar du. Guk hasieran ez genuen ispilurik, edo bestela kanpoko musikariak hartzen genituen ispilu bezala. Orduan, ikasi egin da, eskola batzuk

eta norabide batzuk egon direla, euskal kantagintzaren izate modu hori egiten joan da, eta gerora ere aldatzen joango da.

— Lehen singleak 1967an kaleratu zenituen.

— Bai. Lehendabiziko LPa 1969an eta aurretik sei single. Norbaitek izango ditu behar-bada etxean gordeta. Dendetatik aspaldi desagertu ziren.

— Zein duzu ateratako guztietatik kuttunena?

— Garaian garaikoa bizi-tzen da. Kantagintzan beti maitate izaten dituzu kanta batzuk. Dena den, diskorik landuena “Hitaz Oroit” dela esango nuke.

— Abesti tradizionalak

ala konposizio berriak?

— Kantu zaharrek nola-baiteko oinarria ematen digute. Gure tradizioan egon diren joeren berri ematen digute eta euskaldunon izateko modu bat islatzen dute. Tartean badira oso kantu ederrak ere, eta horiek geure egiten saiatzen gara. Beste batzuek badute kantak egiteko bokazio propioa, eta hortik abiatuz kanta berriak egiten dituzte. Niri biak iruditzen zaizkit interesgarriak, baina joerak baino garrantzi handiagoa ematen diot neure kantak egiteari.

— Zure kantuetan zein leku betetzen dute musikak eta hizkiek?

— Ez da erraza esaten. Bi sentsibilitate dira: hitzekin



“Hogeita hamairu urteren ondoren, dudarik gabe, ‘Ez Dok Amairu’ren eragina antzematen da”

# ta batek goia jo duenik”

idea eta sentimendua transmititu nahi izaten dugu, eta musikarekin sentimendua bai, baina, ideia abstraktoagoa gelditzen da. Musikarekin sorgin mundua, misterioa eta magiaren urraketa gehiago gertatzen da hitzekin baino. Halere, kantua nahiko elbarri gelditzen da bati garrantzia eman eta beste-areki kentzen bazaio.

**— Hasiera gitarra hutsez eta orain taldea. Zergatik?**

— Gu hasi ginenean sentsibilitate hori lokartua zegoen oraindik Euskal Herrian, eta esku artean genuen gitarrarekin baliatzen ginen xume-xume. Joanean, sentsibilitate horiek piztuz joaten dira, eta musikariak ere hortaratzen dira.

**— Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Zuberoari abestu diezu. Gipuzkoari noiz?**

— Ni itsastiarra izanda

itsasoari hain aipamen gutxi egiteagatik galdetzen didate askok. Kantuak egiterakoan gure sentimenduak magnifikatu egiten ditugu, eta urrunxeago dagoen hori magnifikatzen. Gipuzkoari ez diot kanta bat egiteagatik egin nahi. Egunen batean bihotz-taupada hori sortzen bazait egingo dut, baina bestela ez.

**— Noiz asebetetzen du Benito kantu batek?**

— Ez dakit inoiz gelditu naizen asetuta kantu batekin. Beti gelditzen dira zintzilik gauzak. Azkenean bada gaitoxotasun psikologikoren antza

duen joko bat. Aldez aurretik muga bat jartzen diozu zure buruari. Puntu horretara iristean, harantzago jartzen duzu muga. Azkenean inoiz ez duzu zeure burua asetzen. Nik senaz tankera ematen dut kantu batek noiz duen duintasuna, baina inoiz ez dut sentitu kanta batek goia jo duenik.

**— Zer transmititu nahi izaten du Benitok kontzertuetan?**

— Abstraktoki piska bat zure bizitaupadak, zure ibilaldiak, nola ikusten edo sentitzen dituzun gauzak... Sentimendu horiek kantu bilakatu

dira. Azkenean, gizarte bizi-tza honetan liturgia bat moduan antolatzen ditugu ekitaldi batzuk, eta kantaldiak horietakoak dira. Kantariak bizi-modu bat egiten du handik eta hemendik, eta bizi-modu hori kantuetan bihurtzen da. Kantu horiek publikoari itzultzen dizkiozu, baina kantuek nire eskuetatik ihes egiten dutenean, nik ez dakit zein mundu jorratzen dituzten besteen buruetan. Gero kontatzen dizkizue hau edo bestea bizi izan dutela nire kantuak bide direla, eta badirudi kantuek beren bizi propioa dutela.

**— Benitoren hurrengo diskoa noizko eta nolako?**

— Horretan dihardut. Orkestraren egitasmoari heldu diodanean piska bat baztertu egin behar izan dut. Badi-tut poesia batzuk euskaratuta, besteak beste Fernando Pesoaren bost bat. ■

**“Kantuek nire eskuetatik ihes egiten dutenean, nik ez dakit zein mundu jorratzen dituzten besteen buruetan”**



**URONDO**  
Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Proiektuak
- \* Instalazioak
- \* Argiztapena
- \* Automatismoa
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

# Sexuen arteko desioak eta kontraesanak

Arrasateko Gazte Bulegoak eta Emakume Sailak sexualitate lantegia antolatu dute. "Emakumeak eta gizonak, nolako desioak, nolako kontraesanak" izenburua izango du sexualitate lantegiak, eta 8 orduko iraupena izango du gutzira. Apirilaren 20an eta 27an eta maiatzaren 4an eta 11n izango da, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

## SEXOLOGO EMAKUMEAK

Agurtzane Ormaza eta Garbiñe Merino sexologoak izango dira lantegia bideratuko dutenak. Agurtzane Ormazari lantegian zer landuko den galdetu diogunean, zera erantzun digu: "batez ere nolako desioak ditugun emakumeok, eta nolako kontraesanetan aurkitzen garen batzuetan. Gauza bat nahi duguna da, eta bestea egiten duguna. Aukeratzeko daukaguna eta jendeak egiteko esaten digunaren artean ere alde handia dago. Ondorioz, kontraesanek hartzen dute bere baitan emakumea".

Agurtzane Ormaza eta Garbiñe Merino sexologoak dira. Garbiñek Hezkuntza arloan dihardu lanean batez ere, eta

Agurtzane hezkuntzaz gain terapia arloa ere lantzen du.

## DESIOAREN BAZTERKETA

Biek ala biek, hezkuntza eta terapia arloan gizon-emakumeen arteko harremanak askotan gaitzak izaten direla uste dute. Agurtzane adierazi digunez, "hori askotan gure desioak alde batera utzi eta egin behar dugunari gehiegi erreparatzen diogulako gertatzen da, egin nahi duguna alde batera utzita".

Ikastaroa emakumezkoen eta gizonaizkoen zuzenduta dago, baina Agurtzane adierazi digunez, "gehienetan emakumezkoak etortzen dira ikastaro hauetara".

## HEZIKETA

Gizarteak jasotzen duela sexualitateari buruzko heziketa uste du Agurtzane. "Kalean entzuten dena, prentsan, aldizkarietan, telebistan, etxean esaten ez dena... hori guztia da hezkuntza. Dena den, instituzioen aldetik oraindik inplikazio gutxi dagoela uste dut. Hori dela eta, ikastaroak kanpaina handiak dau-



Desioak eta kontraesanak izango dira aztergai sexualitate lantegian.

denean soilik egiten dira: haurdunaldi kanpainak, hiesarenak... hori dela eta sexualitateari buruz hitz egitean sexu jokaeretara soilik mugatzen

gara."

Sexualitate lantegian izena emateko epea martxoaren 31n bukatuko da. Ikastaroa dohain izango da gainera.

## Gazteen irakurzaletasunari buruzko liburua aurkeztuko da Bergaran ostiralean

Euskal gazteriak euskaraz irakurtzeko duen ohi-turaren gainean azterketa soziologikoa egin du Mari Jose Olaziregi EHUko irakasleak. Azterketa hau 1995ean jasotako Justo Garate bekaren laguntzaz egin du. Azterketaren emaitzen arabera, nabarratiba nahiago dute

gazteek, eta emakumezkoek gehiago irakurtzen dute gizonaizkoek baino. Adinak gora egin ahala, dena den, gutxiago irakurtzen da, eta gazteek euskal literaturaren azken argitalpenekiko ez dute interes handirik azaltzen.

Justo Garate Arriola Ber-

garako seme kuttuna da, eta 1992tik Bergarako Udalak bere izena daraman beka banatzen du urtero. Bekaren helburua ikertzaile gazteen artean Euskal Herriko Soziologia, Historia eta Euskal Filologian ikerketa bultzatzea da.

Aurkezpena Bergarako

Udaletxeko osoko bilkura aretoan izango da, arratsaldeko 19:00etan. Vitoriano Gallastegi Bergarako alkateak, Bizente Huizi bekaren epaimahaikideak eta Mari Jose Olaziregik "Euskal Gazteen irakurzaletasuna" liburuaren egileak hartuko dute parte aurkezpenean.

ANA MANDIOLA, JAZZ DANTZA IKASTAROETAKO IRAKASLEA

## “Ametsezko zerbait da dantza niretzat”

**35 urte ditu eta donostiarra da. 18 urte zituela Madrilera joan zen, eta orduan ekin zion dantza ikasteari. Arrasate Musikalen dantza irakasten dihardu, Udaleko Gazteria Sailak antolatutako ikastaroan. Ikastaroa ematen duen hirugarren aldia da. Aurrez Arnaldo Patterson bere senarra aritzen zen Mondragoen irakasten.**

### — Noiztik dantzarako zaletasuna?

— Hamar bat urte nituela, nire gurasoek Donostiako kontserbatoriora bidali ninduten dantza klasikoa ikastera. Hiru urtez ikasten ibili ondoren, utzi egin nuen. Aktore izan nahi nuen, eta arte dramatikoak ikasten nuen Madrilén, hara joan bainintzen 18 urterekin. Gerora nire senarra izango zena ezagutu nuen, Arnaldo Patterson. Berarekin hasi nintzen dantza ikasten, eta nire bizitza zeharo aldatu zen. 1981. urtea zen. Arte dramatikoak utzi eta gaur egungo dantza eta jazz dantzan sartu nintzen buru-belarri.

### — Zein dantza mota irakasten duzu Arrasateko ikastaroan?

— Iaz gaur egungo dantza irakatsi nuen. Ikasleek jazza ere ikasi nahi zuten. Beraz, bi talde egin ditut. Batzuk hasi berriak dira, eta hauek oso gazteak dira. Hauei jazza irakasten diet.

### — Zein aldekotasun eta zein kontrakotasun ditu dantzatik bizitzeak?

— Oso zaila da dantzatik bizitzea. Hiri handietan dantzaren kultura dago, jendeak dantzarekiko kontzientzia du. Baina zure lanbidea lehenik ikasle eta gero irakasle bezala garatu nahi baduzu, lanbide honi dena eskaini behar diozu. Bestalde, dantzak asetze handia ematen dizu, baina artista batek ez daki sekula etorkizunean zer gertatuko zaion.



### — Zein prozedura erabiltzen duzu irakasteko?

— Lehenik ikastaroetara datorren jendea ezagutzen saiatzen naiz. Eskolak horren arabera moldatzen ditut. Lehenengo beroketak egiten ditugu, eta gero dantzako pausoak. Esperientziadun irakasle batek badaki ikasle bati ezin dizkiola neurritz kanpoko gauzak eskatu. Jazzak funtsezko bi ezaugarri ditu: erritmoa eta koordinazioa. Saioari erritmo egokia ematea garrantzitsua da. Eskolak astean behin emateak, ordea, asko mugatzen du.

### — Nola bizi duzu dantza?

— Ametsezko zerbait da niretzat. Begiak zabalik amesteko eta gauzak ikusteko modua da. Guztiok egin behar izaten ditugu zenbait gauza ongi sentitzeko. Nik neure senarra ezagutu nuenean bizitza zeharo aldatu zitzaidan, eta gerora dantza ez dut sekula lanbide bezala ikusi; dantzak pertsona bezala garatu nau, eta berak lotzen nau bizitzarekin.

**“Jazzak funtsezko bi ezaugarri ditu: erritmoa eta koordinazioa”**

## aste gazte

### ■ DIRU LAGUNTZAK

• Gipuzkoako Foru Aldundiak ingurugiro alorrean ikerketa bat egiteko diru laguntza emango du, zientzia kimikokan berriki lizentziatu direnentzat. Epea: martxoak 3.

• “Censolar”ek eraturik, eguzki-energia programatzailer eta instalatzaile ikastaroa egin ahal izateko diru laguntza. Epea: apirilak 30.

### ■ LANA

• Bizkaiko Foru Aldundirako lanpostu batzuk: sukaldaritzako laguntzaileak, administrariak, administrari laguntzaileak. Epea: martxoak 2.

• Azkoienngo Udalak kultura etxeko arduraduna behar du. Epea: martxoak 3.

• Amurrioko Udalak hainbat postu bete nahi du: pertsonal koordinatzailea, liburutzaia, administraria, ekonomista, kirol koordinatzailea, lorezaina, gidaria eta administrari laguntzailea. Epea: martxoak 4.

• Errenterriko Udalerako biola, kontrabaxu, fagot eta oboe irakasleak behar dira. Epea: EAOean argitaratu zain.

### ■ IKASTAROAK

• Hezkide Eskolak eratu-ta, oroimena lantzeko saioak, adin nagusiko pertsonekin lan egiten duten profesionalen zuzenduta. Epea: martxoak 5.

### ■ GAZTE IKASTAROAK

• Irrati kontrola: Arrasate Irratiarekin elkarlanean, matxoaren 9an hasi eta apirilaren 20a arte. Astearte eta ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara. Matrikula 4.000 pta/2.000 pta ikasle eta langabeentzat.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65

# Gida 99

Leintz Bailerako profesional eta zerbitzu guztiak zure esku.

## Aurkitu duzu akatsik?

Dei egin 943 71 23 91 telefonora.

### ARRASATE

#### ALDI BATERAKO LAN ENPRESAK

VEDIOR LABORMAN, Garbai, 7 - I ..... 943 79 87 77



**Aldi baterako lan empresa**

**Vedior Laborman**  
ARRASATE  
Garbai 7-1  
Tel: 943 79 87 77  
ARRASATE  
Fax: 943 79 71 83  
Adm: balman@2910004/94

#### AROTZEGIAK

CARPER, Inocencio Curro, Agerre, 21 - I ..... 943 79 69 87 / 407 46 83 45

#### ITZULPENAK

GOIHATA S. L. Alfonso X. Jakintsua, I ..... 943 79 25 75

**GoiHata S.L.**

「日本語」

Japonesa, ingelesa, euskara, eta hizkuntza guztiak itzultzen ditugu

Alfonso X. Jakintsua, 1 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 25 75 • Faxa: 943 71 21 25

#### KOMUNIKABIDEAK

#### Egunkariak

EL CONICO eta EFE J. L. Aizkari (Olea Gariko korrei) ..... 943 79 27 30

#### PERTSIANAK

CARPER, Inocencio Curro, Agerre, 21 - I ..... 943 79 69 87 / 407 46 83 45

### ARETXABALETZA

#### KRISTALDEGIAK

BERALAN, Herriko Plaza, 8 ..... 943 79 81 78



**KRISTALDEGIA**

Kristalgintza orokorra  
Segurtasun beirak  
Ispilak, beiradunak, biselatuak  
eta grabatuak  
Armatu irribatagarien  
aurtealdak, Eimarkatziak

Herriko Plaza, 8 • ARETXABALETZA  
Tel.: 943 79 81 78 • Mug.: 670 99 72 74 • Fax: 943 79 81 78

#### ESKORIATZA

#### LANTEGIAK

#### Leunketak

PULIMENTOS AGAR  
Aingurguarda Ibilbidea ..... 943 71 30 10

#### LEINTZ GATZAGA

#### JATEIXEAK

ZUHANTZ, Gatzaga ..... 943 71 54 94



**Zubaitz**

Karta eta eguneroko menuak  
• Bakalaoan espezializatuak  
(Astoharrietan ikita)

Rosario, 4 • Tel.: 943 71 54 94  
\* TELEFISTOAN AURKITUKO GAITUZU

# Nepaleko usainak eta Emakumeen Eguna

Datorren asteko Munduari Buelbaka saioan, aurkezleak berak kontatuko digu joan den abenduan Nepalen egin zuen ibilaldia. Hilabete pasatxo egin zuen Himalaya inguruetan Garikoitz Kortazarrek, lagun talde batekin batera. Diapositibaz lagundurik erakutsiko dizkigu hango bazter zoragarriak. Bidaian zehar gertaturiko anekdotak ere agertuko dira han-hemenka. Asteartean, 21:30etan.



Begoña Garaizabalen hormirudia.



Hilabete egin zuen Garikoitz Kortazarrek Nepalen.

## EMAKUMEAK MINTZAGAI

Rosa Mondragonek hainbat gonbidatu izango ditu Mahai Inguruan, Martxoaren 8a aitzakia harturik, emakumeen inguruan hitz egiteko. Herriko emakumeen elkarteak eta udaleko Emakumeen Saileko ardura-

duna elkartuko dira mahaiaren bueltan. Asteazkenean, 21:00etan.

Kaleidoskopia saioan ere emakumea hartuko dute mintzagai. Arrasateko Emaku-

meen Asanbladako partaide bat izango da gonbidatua. Emakume talde bat zer den eta zertarako sortzen den, zer lan egiten duen urtean zehar... era horretako galderak izango

dituzte Unai Iparragirrek eta Aitziber Langaranek. Betir-tze Iñurritegik, berriz, literatura izango du hizpide. Anartz Agirrek, zinea. Ostegunean, 21:30etan.

## ■ ATBren programazioa

LARUNBATA, 27	ASTELEHENA, 1	ASTEARTEA, 2	ASTEAZKENA, 3	OSTEGUNA, 4	OSTIRALA, 5
13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika: Musiklasik, Aurrez-aurre, Ekilan, Soinuz Blai eta Astebete	13:30 Albiste aurrerapena  13:35 Astebete  20:00/20:30/21:00 Berriak  21:30 Mondrasport Itxaro Zubillaga kazetariak aurkezturik, Asteburuko kirolei errepaso.	13:30 Albiste aurrerapena  13:35 Mondrasport (errepika).  20:00/20:30/21:00 Berriak  21:30 Munduari Buelbaka. Garikoitz Kortazarrek Nepalera egindako bidaiaren berri emango digu.	13:30 Albiste aurrerapena  13:35 Munduari Buelbaka  20:00/20:30/21:00 Berriak  21:00 Mahai ingurua. Emakumeak izango dira mintzagai.	13:30 Albiste aurrerapena  13:35 Mahai ingurua (errepika).  20:00/20:30/21:00 Berriak  21:30 Kaleidoskopia. Martxoaren 8a aitzakiatzat hartuta, emakueen asanbladako partaide bat izango da gonbidatua. Taldearen zereginak eta helburutaz hitz egiteko.	13:30 Albiste aurrerapena  13:35 Kaleidoskopia (errepika).  20:00/20:30/21:00 Berriak  21:30 Astebete. Astean zehar gertatu diren berri garrantzitsuen errepaso, Maider Osak aurkeztuta.  22:00 Soinuz Blai. Edu Abasolok azken orduko bideoklipak aurkeztuko ditu.
<b>IGANDEA, 28</b> 13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika: Musiklasik, Aurrez-aurre, Ekilan, Soinuz Blai eta Astebete		 Garikoitz Kortazar	 Rosa Mondragon	22:00 Soinuz Blai.	

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxebizitza salgai Aretxabaletan. Garajea aukeran. Tel.: 943 79 80 44 (deitu 09:00etatik 18:00etara).

• Etxebizitza salgai. Tel.: 943 79 45 58.

• Etxebizitza salgai Arrasateko Cor-doba y Oro kalean. Tel.: 943 79 51 88 / 943 79 86 40.

### 2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 70 73.

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 649 20 35 12.

### 3. Errentan emateko

• Emakume alarguna ikasle bati (hobe neska bada) logela bat alokatzeko gertu, Bilboko Santutxu auzoan. Metroko sarreratik hurbil dago. Merke. Tel.: 944 33 54 41.

### 4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza alokatu edo osatuko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 64 04.

• Pertsona bakararentzako teilatupea alokatu nahi dut. Tel.: 943 79 59 60.

• Bikoteak etxebizitza alokatuko luke. Tel.: 943 65 45 40 / 943 72 30 25 (20:00etatik 22:00etara).

• Etxebizitza nahi dugu alokatu, Arrasaten edo inguruan. Tel.: 94 447 04 61

### 5. Etxeak osatzeko

• Bi mutilek etxebizitza merke bat alokatuko genuke. Beste batzuekin osatzeko ere prest egongo ginateke. Tel.: 943 79 89 73.

• Etxebizitza bilatzen ari gara. Tel.: 943 71 42 39 (deitu 18:00etatik 21:00etara). Yolanda.

• Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu Aramaion. Tel.: 617 600 265 (bertan mezua laga).

• Logelak alokatzen dira Aretxabaletan (sukaldea erabiltzeko eskubi-

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 71 23 88

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

dearekin). Tel.: 943 79 05 26.

• Logela baten bila nabil etxebizitza partekatuta batean. Tel.: 943 42 98 19 (Noel).

• Pertsona euskalduna behar da etxebizitza osatzeko Arrasaten. Tel.: 943 85 04 86.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Garajea salgai S. Andres eskola ondoan; auto batentzat. Tel.: 943 62 46 00 (102 luzapena). Santi.

• Garaje toki bat saldu nahi nuke Munarren. Tel.: 943 79 44 07.

• Garaje itxia salgai Larrea aldean, 25m<sup>2</sup>koa (bi autorentzako lekua dauka). Tel.: 943 79 69 41 (Mari).

• Garajea salgai Laukalen (Roneon). Tel.: 943 79 01 71. (19:00etatik 22:00etara).

• Garajea salgai Kontzezinon. Tel.: 943 79 54 07.

### 10. Errentan hartzeko

• Garaje bat alokatuko nuke Musakola aldean. Tel.: 943 79 21 46.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Enpresentzako lekuak dauzkagu alokatzeko, ura eta argindarrarekin. Era honetako jarduerak egin litezke hemen: muntaketa, prentsa, pintaketa, soldaketa eta galdaragintza. Tel.: 608 770 786.

• Lanean dabilen negozioa eskuz aldatuko nuke. Tel.: 943 79 47 85.

### 14. Errentan emateko

• Aretxabaletan taberna bat alokagai dago. Interesatuek berandu deitu 943 79 01 47 telefonora. (Joxe).

• Denda bat alokagai Arrasaten. Tel.: 943 79 08 70.

• Artista: zure obra gauzatzeko toki lasai eta barea behar baduzu, Arrasateko hurbil, Deba Garaian tailer

bat daukat elkarrekin erabiltzeko. Tel.: 943 71 42 86.

• Ille apaindegia eta edertze aretoa alokatzeko. Santamainan, 14-behea. Tel.: 943 79 73 43 (Mertxe).

### 15. Errentan hartzeko

• Gazte talde batek lokal merke bat alokatuko luke. Tel.: 943 79 86 08. (Jon).

• Lagun talde batek lokal bat alokatuko luke, Arrasaten edo inguruetan. Tel.: 943 79 87 40 (Iker). Deitu 21:30etatik aurrera.

• Lagun talde batek hutsik duzun txoko hori alokatuko luke. Tel.: 943 79 65 31.

• Gazte talde batek toki bat alokatu nahiko genuke Arrasaten. Tel.: 943 79 40 65 (Maitane).

• Pertsona bat behar da taberna bateko sukaldean lan egiteko. Tel.: 943 79 61 64.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Psikologoa laguntza emateko gertu. Tel.: 649 22 51 07.

• Neska arduratsua prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74 (Goizez edo 20:00etatik aurrera detu).

• Neska prest sukalde laguntzaille bezala lan egiteko edo taberna nahiz jangelako zerbitzari gisa. Esperientziaduna. Tel.: 943 79 73 42. Beatriz.

• Esperientziadun andra gertu etxeko lanak egiteko orduka. Tel.: 943 79 11 46 (asteburuetan deitu).

• Zazpi urteko esperientziaduna lan egiteko prest jateke edo taberna batean zerbitzari bezala. Tel.: 943 77 08 13.

• Neska bat behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 73 82.

### 18. Eskaerak

• Emakume arduratsua behar dugu umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 37 73 (13:00etatik aurrera).

• Euskaraz hitz egiten dakien pertsona baten bila nabil, elikadura



denda baterako. Bezero asko ditugu. Tel.: 943 79 96 39/ 941 60 81 79. (Fernandezez galdetu).

• Pertsona bat behar da kirolendea batean lan egiteko. Bidali datuak 259 posta kutxatilara.

• Neska euskalduna behar dugu azokan, ostiral goizetan eta asteburuetan izotz denda batean lan egiteko. Tel.: 943 77 05 98 (09:00etatik 13:00etara deitu).

• Emakume euskalduna behar da, umeak zaintzeko. Tel.: 943 77 01 31.

• Emakumea prest pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak ditut.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Enpresa Zientzietan lizentziadunak eskola partikularrak ematen ditu, 15 urtetik beherakoentzat. Tel.: 943 79 06 39.

• Irakasle ikastetetan lizentziadunak eskola partikularrak ematen ditu. el.: 943 79 35 24.

### 21. Eskaerak

• Gastelaniako eskola partikularrak hartuko nituzke. LOGSE 1. eta 2. mailatan. Tel.: 943 79 79 12

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Ford Courier 18D salgai Matrikula: SS-AN Tel.: 943 79 82 09.

• Golf GTI salgai. Sei urte ditu eta egoera onean dago. Tel.: 608 771 732.

• Trialerako Aprilia Climber salgai. 280cc<sup>3</sup>, egoera onean. 225.000 pta. Tel.: 943 79 78 36

• Volkswagen Golf bat salgai. GTI 16v. SS-AD matrikuladuna. Tel.: 943 77 16 46 (20:00etatik aurrera).

• Rieju RS1 Evolution motorra salgai. 6.000 km. Tel.: 943 79 25 73.

• Opel Corsa 1.2 salgai, egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 79 18. (Gorka).

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Egoera onean dagoen Fagor markako ur termoa salgai. Oso merke. Tel.: 943 79 13 54.

• Bideokonsola salgai, bi kartutxorekin. Megadrive. 10.000pta. Tel.: 943 79 91 77.

• Game Boy bat salgai Tetris eta Stargate jokoeekin. Egoera onean. 5.000 pta. Tel.: 943 79 13 96. (arratsaldez edo gauez).

• 150 litroko eta bi akumuladore dituen termo urberogailua salgai. Tel.: 943 76 44 96.

• Hozkailu txiki bat saldu nahi dut. Modu onean. Tel.: 943 79 22 21 (15:00etatik aurrera).

• Yamaha gitarra elektrikoa salgai. Gutxi erabilia. Tel.: 943 79 71 30 (Aitor).

• Eskiatzeko bularbabesa salgai. Oso egoera onean. Neurria, XXL. Tel.: 943 79 27 70 / 610 861 052.

• Volkswagen Golf baten eskitegiak salgai. Tel.: 943 79 27 70 / 610 861 052.

• XR2 baten llantak salgai, estalki eta guzti. Tel.: 943 79 27 70 / 610 861 052.

• Salgai: gitarra elektrikoa (beltza, hiru pastillak), estalki gogorra (berria), anplifikadorea (Roand markakoa, efektu eta guzti, flangerra adibidez), distorsio pedala, metal zone, guagua pedala (Vox markakoa), kableak, gozagailua. 60.000 pta. Helbide elektronikoa: FD1@decgi.e-mail.com

### 29. Eman

• Koltxoiren bat bota behar baduzu, deitu telefono honetara, guk behar dugu eta: 943 77 05 90 (Nagore). Eguerdiari deitu.

### 31. Galdu

• Artzain txakur bat galdu da. Izena: Sohi. Lepoko berdea darama. Oste-gunean galdu zen, Sara inguruan. Zerbait dakienak dei egin dezala 943 77 13 66 telefonora.

• Inauterietako asteartean argazki erroilu bat galdu nuen San Andres eta Erdialdearen arteko bidean. Aurkituz gero, deitu 943 71 48 26 telefonora (Montse - Mari).

# Sexualitate tailerra

**“Emakumeak eta gizonak, nolako desioak, nolako kontraesanak”**

Hizlariak:

**Agurtzane Ormaza  
Garbiñe Merino**

Egunak:

**Apirilak 20 eta 27  
Maiatzak 4 eta 11**

Ordutegia:

**Arratsaldean  
18:00 - 20:00**

Izenematea:

**Gazte Bulegoan edo  
Emakume Sailean**

Epea:

**Martxoak 31**

Matrikula dohainik



ARRASATEKO UDALA

Sexualitate Bulegoa ■



**L**932. urtekoa da argazkia. Santa Barbara parkean ateratakoa, elurte egun batean. Argazkikoak Juanita Barrutia eta Julita Barrutia ahizpak, Rafaela Ruiz eta Felisa Ibañez de Opakua "Txomin Txiki" dira. Santa Barbara parkean Goikobalu izeneko txokoa daude. Jakina denez, behelaldean, Behelkobalu izeneko ere bazegoen.

Elurra egiten zuenean, ohitura zen kaletarren artean San-

ta Barbara parkera joatea elurretan jolastera.

Bestalde, Santa Barbara jaia ere ospatzen zen parkean. Berez, jaieguna abenduaren 4an bada ere, eguraldi kaskarraren ondorioz, maiatzera pasatu zen ospakizuna, Igo-kundearen egunera. Egun horretan, herriko musika bandarekin dantzaldia egoten zen parkean.

Jakin izan dugunez, atzo Felisa Ibañez de Opakuak 90 urte bete zituen. Lau seme-ala-

ba, 18 iloba eta biloba bat ditu. Senide guztien partetik zorionak bihotz-bihotzez!

### Oharra:

Nahi baduzu etxean duzun aspaldiko argazki eder hori Arrasate Pressen argitaratzea, ekarri geuri eta atarako dizugu.

-----  
**Argazkia eta beriemalea:**  
 Arantza Alonso.

## BITTORI

### ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua  
**Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak**  
 Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



**ALMEN**  
IKASTOLA



**SAN FRANTZISKO XABIER**  
IKASTOLA



**SAN VIATOR**  
IKASTOLA



**umezaintza**  
HAIR-ESKOLA



**HEZIBIDE**  
Hezkuntza Taldea

# HEZIBIDEko Ikastolen Apostua Batxilergo eta Heziketa Zikloetan **ere bai!**



**Zatoz Informatzera!** 

Biteri Etorbidea, 15 behea  
Tel: 943 79 88 75  
20500 ARRASATE

# EZ DAGO KONPARAZIORIK



**OMU**  
ZERAMIKAK



Biltegia eta bulegoak: Meazterreka 6 • Tel./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE  
Erakusketa: Otalora 1, behea • Tel.: 943 79 07 20 • ARRASATE

**FRAIKUNTZARAKO MATERIALAK**